



# NAFARROAKO PARLAMENTUKO

## ALDIZKARI OFIZIALA

---

VIII. legegintzaldia

Iruña, 2013ko ekainaren 4a

60. ZK.

---

### A U R K I B I D E A

#### G SAILA:

##### **Txostenak, deialdiak eta Parlamentuko informazioa:**

- Tafallako Udalari buruzko fiskalizazio-txostena, 2011ko ekitaldikoa, Kontuen Ganberak egina (2. or.).
- Barañaingo Udalari buruzko fiskalizazio-txostena, 1999ko ekitaldikoa, Kontuen Ganberak egina (24. or.).

---

**G saila:**  
**TXOSTENAK, DEIALDIAK ETA PARLAMENTUKO INFORMAZIOA**

---

**Tafallako Udalari buruzko fiskalizazio-txostena, 2011ko ekitaldikoa, Kontuen Ganberak egina.**

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2012ko urriaren 15ean eginiko bilkuran, Eledunen Batzarriari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

Kontuen Ganberak Tafallako Udalaren 2011ko ekitaldiaz emandako fiskalizazio-txostena ikusirik, ERABAKI DA:

**1.** Txosten horren edukiaren jakinaren gainean dagoela adieraztea.

**2.** Erabakia Nafarroako Parlamentuaren Aldizkari Ofizialean argitara dadila agintzea.

Iruñean, 2012ko urriaren 15ean

Nafarroako Parlamentuko lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

**Tafallako Udalari buruzko fiskalizazio-txostena, 2011ko ekitaldikoa, Kontuen Ganberak egina**

**AURKIBIDEA**

- I.** Sarrera (2. or.).
- II.** Helburua (6. or.).
- III.** Norainokoa eta mugak (6. or.).
- IV.** 2011ko kontu orokorrari buruzko iritzia (7. or.).
  - IV.1. 2011ko ekitaldiari dagokion Udalaren Kontu Orokorra (7. or.).
  - IV.2. Legezketasuna (7. or.).
  - IV.3. 2011ko abenduaren 31ko egoera ekonomiko eta finantzarioa (7. or.).
  - IV.4. Aurreko txostenetan Kontuen Ganberak emandako gomendioen betetze-maila (8. or.).
- V.** 2011ko kontu orokor bateratuaren laburpenaren laburpena (10. or.).

V.1. Aurrekontu bateratuaren betetze-egoera (eurotan) (10. or.).

V.2. Aurrekontuaren emaitza bateratua (11. or.).

V.3. Diruzaintzako Gerakinaren egoera bateratua (11. or.).

V.4. Egoera-balantze bateratua (12. or.).

V.5. Galera eta irabazien kontu bateratua (13. or.).

**VI.** Iruzkizunak, ondorioztapenak eta aholkuak (14. or.).

VI.1. Alderdi orokorrak (14. or.).

VI.2. Langileak (15. or.).

VI.3. Ondasun arruntetan eta zerbitzuetan egindako gastuak (16. or.).

VI.4. Inbertsioak (17. or.).

VI.5. Aurrekontuko diru-sarrerak (18. or.).

VI.6. Inbentarioa – Ibilgetu materiala (19. or.).

VI.7. Hirigintza (20. or.).

VI.8. "Ciudad Deportiva Tafalla, S.A." sozietatea (20. or.).

1. Eranskina: 2011ko kontu orokorraren memoria.

2. Eranskina: "Hospital Nuestra Señora de la Caridad" erakundea (23. or.).


(Oharra: 1. eranskin hori Foru Parlamentariaren esku dago Legebiltzarreko Zerbitzu Orokorrerako bulegoetan eta honako web helbide honetan: [www.cfnavarra.es/camara.comptos](http://www.cfnavarra.es/camara.comptos)).

**I. SARRERA**

Kontuen Ganberak, 2011ko ekitaldiko jarduketaprogramari jarraituz, Tafallako Udalaren 2010eko Kontu Orokorraren arauzkotasunari buruzko fiskalizazioa egin du.

Udalerrri honek 98,3 km<sup>2</sup> ditu eta 11.390 biztanle ditu, 2011ko urteko erroldaren arabera.

Udalaren eta haren mendeko erakundeen osaketa honako grafiko honetan ikusten da:



Erakunde horien datu ekonomiko nagusiak 2011ko ekitaldiaren amaieran honako hauek ziren:

- Administrazio Publikoaren arloa: Tafallako udalak hiru erakunde autonomo ditu zerbitzu publikoak eskaintzeko: Udal Musika Eskola, Kultura Patronatua eta Kirol Patronatua. 2011ko abenduaren 31n honako kopuru hauek agertzen dituzte:

Erakundea	Aitorturiko betebeharrak	Aitorturiko eskubideak	Langileak 2011-12-31n
Udala	13.499.181	13.784.480	153
Udal Musika Eskola	470.433	240.123	17
Kultura Patronatua	442.381	27.154	7
Kirol Patronatua	332.218	89.640	10
Guztira	14.744.213	14.141.397	187

Oharra: 2011ko abenduaren 31ko langileen artean, behin-behineko 26 langile daude, tailer-eskolakoak, eta beste 13, gizarte enplegutik heldu direnak.

Udalak 2011n bere erakunde autonomoei egin dien ekarpena 888.114 eurokoa izan da (Udal Musika Eskola, 230.310 euro; Kultura Patronatua, 415.227 euro, eta Kirol Patronatua, 242.577 euro).

- Enpresa Publikoen sektorea. 2001ean, Tafallako Udalak “Ciudad Deportiva Tafalla S.A.”

(CDTSA) pertsona bakarreko sozietatea eratu zuen kirol-hiria eraiki eta kudeatzeko, eta udala bera da bertako akziodun bakarra. Ez du langile berekirik, eta lehiaketa publiko bidez esleituta dauzka kirol-instalazioen kudeaketa eta taberna-kafetegiaren ustiapena. 2011n datu ekonomiko hauek ditu:

Enpresa publikoa	Diru-sarrerak	Gastuak	Ekitaldiko emaitzak	Langileak 2011-12-31n
Ciudad Deportiva Tafalla, S.A.	88.951	377.279 €	(288.328)	-

Fundazioen sektore publikoa: “Hospital de Nuestra Señora de la Caridad” erakundearen helburua zaharren egoitza kudeatzea da; bere izaera juridikoa, erakunde publiko edo pribatua, definitzeko dago, Ganbera honek askotan eskatu duen bezala. 2011n datu ekonomiko hauek ditu:

	Diru-sarrerak	Gastuak	Ekitaldiko emaitzak	Langileak 2011-12-31n
Nº Sra. De la Caridad ospitalea.	1.647.546	1.780.397	(132.851 )	42

Udalak ondoko mankomunitateetan hartzen du parte:

- Mairagako Mankomunitatea, zeinaren bidez ematen baititu uraren ziklo integralaren zerbitzuak eta hiri-hondakin solidoen kudeaketa eta tratamendua.

- Nafarroako Erdialdeko Kirol, Gizarte eta Kultur Zerbitzuen Mankomunitatea, gazteen kirol-jar-

duerak nahiz gizarte eta kulturaren arlokoak egiteko.

- Tafallako eskualdeko gizarte-zerbitzuen Udaltarteko Elkarteak.

Halaber, Nafarroako Erdialdea Garatzeko Partzuergoan, eskualdeko Eraikinak eta Etxebizitzak Zaharberritzeko Bulegoan (ORVE) parte hartzen du.

Zerbitzua	Udala	Erakunde autonomoa	Mankomunitatea	Emakida	Zerbitzu-kontratua
Zerbitzu administratibo orokorrak	x				
Udalzaintza	x				
Musika eskola		x			
Hirigintza	x				
Ur-hornidura			x		
Hiri-hondakinak			x		
Bideak garbitzea					x
Udal hilerria	x				
Euskararen udal-zerbitzua	x				
Ikastetxeen mantentzea	x				
Ludoteka	x				
Kontsumitzailea artatzeko zerbitzua	x				
San Sebastián Gizarte Etxea	x				
Gizarte Zerbitzuak	x				
Etxeko laguntza	x				
Liburutegia		x			
Kultur Etxea		x			
Babestutako enplegu soziala	x				
Berdintasuna	x				
Gazteen Etxea	x				
Herritarren Arretarako Bulegoa	x				
Errolda	x				
Hiritarren Partaidetza	x				
Diru-bilketa	x				
Diru-bilketa exekutiboa	x				x
Futbol-zelaiak	x	x			
Tafallako kirol-hiria				x	
Ereta kirol-konplexua		x			
Zidacos pilotalekua	x				
Patinatzeko pista	x				
Teniseko pistak		x			
Musika-eskola		x			
Lantegi-eskolak	x				

Toki-entitateari aplikatu dakioken erregimen juridikoa, 2011ko ekitaldian, honako hauek osatzen dute, funtsean:

- Nafarroako Toki Administrazioari buruzko uztailaren 2ko 6/1990 Foru Legea.

- Nafarroako Toki Ogasunei buruzko 2/1995 Foru Legea.

- Toki Araubidearen Oinarriak Arautzeko apirilaren 2ko 7/1985 Legea.

- Legegintzako 251/1993 Foru Dekretua, Nafarroako Administrazio Publikoen zerbitzuko Langileen Estatutuari buruzkoa.

- Nafarroako Toki Araubidea Gaurkotzeari buruzko uztailaren 2ko 11/2004 Foru Legea.

- Kontratu Publikoei buruzko 6/2006 Foru Legea, 1/2007 Foru Legeak toki-entitateari buruz ezarritako berezitasunekin.

- Ekainaren 11ko 12/2010 Foru Legea, Defizit publikoa murrizteko neurri bereziak Nafarroako Foru Komunitatean moldatzen dituenak.

- Diru-laguntzei buruzko 38/2003 Lege Orokorra.

- Lurraldearen Antolamenduari eta Hirigintzari buruzko 35/2002 Foru Legea.

- Uztailaren 5eko 15/2010 Legea, merkataritza-eragiketen berankortasunaren aurkako neurriei buruzkoa.

- Kontabilitatearen eta aurrekontuen arloan, araubide juridikoa ezartzen dutenak 1998ko irailaren 21eko 270, 271 eta 272 foru dekretuak, Nafarroako toki administratzaioari aurrekontu eta gastu publikoari, aurrekontu-egiturari eta kontabilitateari buruzkoak, dira.

- Tafallako Udaleko 2011ko aurrekontua betetzeko oinarriak eta Udalaren bestelako barne-araudia.

Sozietate publikoa, bere estatutuez gainera, toki-araubidearen araudi orokorraz eta indarrean dagoen merkataritza-araudiaz arautzen da, Merkataritza Kodeaz, Kapital Sozietateen legeaz eta Kontabilitate Plan Orokorraz, bereziki.

Txostenak sei atal ditu, sarrera hau ere barne. Bigarren atalean, txostenaren helburuak azaltzen dira, eta hirugarrenean, berriz, egindako lanaren norainokoa. Laugarrenean, Udalaren Kontu Orokorri buruz dugun iritzia. Bosgarrenean, Udalaren finantzen egoera-orri nagusien laburpen bat. Seigarren atalean, erakundearen antolaketa eta Udalaren barne-kontrola hobetzeko egokitzat jotzen ditugun iruzkin, ondorio eta aholkuak biltzen dira, arloz arlo. Horrez gainera, "Ciudad Deportiva Tafalla, S.A." sozietatearen kontuei buruzko hainbat iruzkin jasotzen ditu.

Horiez gainera, bi eranskin daude: bata, 2011ko ekitaldiko kontuei buruz udalak eginiko memoria; bestea, informazioa ematearren, "Hospital Nuestra Señora de la Caridad" erakundearen kontuen laburpen bat.

Lan hau egitean emandako laguntza eskertzen diegu Tafallako Udaleko eta haren mendeko erakunde autonomoetako langileei.

## II. HELBURUA

Nafarroako Toki Administrazioari buruzko uztailaren 2ko 6/1990 Foru Legeari, Nafarroako Toki Ogasunei buruzko martxoaren 10eko 2/1995 Foru Legeari eta Kontuen Ganbera arautzen duen abenduaren 20ko 19/1984 Foru Legeari jarraituz, Tafallako Udalaren 2011ko ekitaldiko kontu orokorraren erregulartasun-fiskalizazioa egin dugu.

Txostenak honako puntu hauei buruzko gure iritzia agertzea du helburua:

- Ea Tafallako Udalaren 2011ko ekitaldiko Kontu Orokorrak irudi zehatza erakusten duen garrantzizko alderdi guztiei dagokienez, hots, ondareari, gastu eta diru-sarreraren aurrekontuaren likidazioari

eta 2011ko abenduaren 31ko finantza-egoerari dagokienez, bai eta data horretan amaituriko urteko ekitaldian eginiko eragiketen emaitzei dagokienez ere, betiere aplikatzekoa den informazio finantzario publikoari buruzko lege-esparruari eta, bereziki, bertan jasotako kontabilitateko printzipio eta irizpideei jarraikiz.

- Aplikagarri zaion legedia zer neurritan betetzen den Tafallako Udalak eta haren mendeko erakunde autonomoek 2011n aurrera izandako jardueran.

- Tafallako Udalaren eta haren mendeko erakunde autonomoen 2011ko abenduaren 31ko finantza-egoera zein den.

- Zenbateraino betetzen diren Ganbera honek 2010eko ekitaldiari buruzko txostenean emandako aholkuak.

Txosten honetan, Udalean eta haren mendeko erakundeetan ezarritako barne kontroleko sistema, sistema administratiboa eta kontabilitate- nahiz kudeaketa-sistemak hobetzeko edota osatzeko egokitzat jo ditugun aholkuak ere gehitu ditugu.

## III. NORAINOKOA ETA MUGAK

Tafallako Udalaren 2011ko ekitaldiko Kontu Orokorrak hauek ditu osagai nagusiak:

- Entitatearen beraren eta bere erakunde autonomoen kontua (Musika Eskola, Kultura Patronatua eta Kirol Patronatua): aurrekontuaren betetze-mailari buruzko egoera-orria, ekitaldiko aurrekontu-emaitza, diruzaintza-gerakina, egoera-balantzea eta emaitzen kontua.

- "Ciudad Deportiva Tafalla, S.A." udal sozietatearen urteko kontua. Sozietate horren kapital osoa udalarena da.

- Kontu orokorraren eranskinak: memoria, egoera-orri bateratuak (Udala eta erakunde autonomoak), zorraren egoera eta kontu-hartzailtzaren txostena.

Ez dira aurkezten kapital guztia Udalarena den sozietatearen egoera-orri bateratuak.

Lan hau Espainiako Estatuko Kanpo Kontroleko Organo Publikoak Koordinatzeko Batzordeak onetsitako eta Kontuen Ganberaren fiskalizazio-eskuliburuan jasotako sektore publikoaren kontu-ikuskaritzari buruzko printzipioei eta arauari jarraituz, eta azterlanaren helburuen eta inguruabarren arabera beharrezkotzat jo ditugun hautapropa edo prozedura tekniko guztiak aplikatuz osatu da; prozedura horien artean laginen teknika edo kontusail edo eragiketa jakin hautatuak berrikusteko teknika erabili dira.

Zehazki, Udalari eta haren erakunde autonomoi dagokienez, aurrekontuen eta finantzen egoera-orrien edukia eta koherentzia aztertu dira, bai eta aplikaturiko oinarritzko prozedura administratiiboak ere; orobat ebaluatu dira antolaketa, kontabilitate eta barne-kontrolako alderdi nagusiak.

“Ciudad Deportiva Tafalla, S.A.” merkataritza-sozietateari dagokionez, haren urteko kontuez kontu-hartzaileak, finantzaketa kontrolatzeko duen eginkizuna betez, egindako berrikusketa-txostena aztertzea izan da egin dugun lana.

Beste alde batetik, “Hospital Nuestra Señora de la Caridad” ospitalearen kontuak udalaren kontu orokorraren parte ez badira ere, haien laburpen bat eranskin gisa gehitu zaio txosten honi.

Lan honek muga bat izan du, hala ere: ezin izan dugu iritzirik eman Udal honek 2011ko ekitaldian aurrekontu-egonkortasunaren printzipioak zenbateraino bete dituen adieraziz, Nafarroako Gobernuak oraindik ere printzipio horiei Foru Komunitate honetako udaletan aplikatzeko araudi berezia eman ez duelako.

#### **IV. 2011ko KONTU OROKORRARI BURUZKO IRITZIA**

Egin dugun lanaren norainokoaren arabera, Tafallako Udalaren eta bere erakunde autonomoen 2011ko ekitaldiko Kontu Orokorra aztertu dugu. Kontu hori prestatzeko ardura, baita bere edukia-rena ere, udalarena da, eta txosten honen V. atalean laburbilduta jasota dago.

Gure azterketa-lanetik ondoko iritzia ondorioztatu dugu:

##### **IV.1. 2011ko EKITALDIARI DAGOKION UDALAREN KONTU OROKORRA**

- Ondasunen inbentarioa 1993koa da, eta eguneratu gabe dago oraindik; horregatik, ezinezkoa izan da egoera-balantze bateratuko ibilgetuaren kontabilitate-saldoaren arrazoizkotasuna egiaztatzea; saldo hori, 2011ko abenduaren 31n, 37,6, milioi eurokoa zen.

- Ez daude kuantifikatuta funtzionarioen pensio-sistemak sorrarazten dituen montepioetako betebeharrak, montepio hori, lanean diharduen langile berririk sartzen ez denez, iraungitze-prozesuan badago ere.

Arestian aipaturiko salbuespenen ondorioak alde batera utzita, Udalaren 2011ko ekitaldiko kontu orokorrak zuzen islatzen ditu alderdirik behinenetan gastuen eta diru-sarreraren aurrekontuen likidazioa, abenduaren 31ko ondare-egoera eta

eginiko eragiketen emaitzak. Halaber, behar adina informazio jasotzen du hura egoki interpretatu eta ulertzeko, aplikatzekoa den informazio publikoko arau-esparruaren arabera, eta, bereziki, hartan bilzen diren kontabilitate-printzipio eta -irizpideen arabera.

Fiskalizazioaren iritzia ezertan ukitu gabe, Kontuen Ganbera honek argi utzi nahi du zer arrisku-egoera eragiten duen gaur egungo krisi ekonomikoko egoerak, finantzaketari dagozkion zer ondorio izan ditzakeen udalaren kontu publikoetan, eta aurrekontuetarako zer eskakizun dituen aurrekontuen egonkortasunerako araudiak. Egoera honetan, hain zuzen, aurrekontuak planifikatzerakoan eta betetzerakoan zorrotz jokatzek, udalaren gastuen eta diru-sarreraren politika eta udalaren beraren antolamendua sistematikoki eta etengabe berrikusteak, lehentasuna eman behar zaien eremuak edota kudeaketa hobetu daitekeen eremuak zein diren ezagutzeak, diru publikoak erabiltzerakoan zorrozki eta gardentasunez jokatzek oinarritzko premisa izan behar dute herritarren oinarritzko premiei erantzuneko dien kudeaketa publiko bat izateko.

##### **IV.2. LEGEZKOTASUNA**

Egin den lanaren norainokoaren neurrian, esan daiteke 2011ko ekitaldian udalaren eta haren erakunde autonomoen jardura ekonomiko eta finantzarioa oro har legezkontasun-printzipioari jarraituz egin dela.

##### **IV.3. 2011ko ABENDUAREN 31ko EGOERA EKONOMIKO ETA FINANTZARIOA**

Udalaren hasierako aurrekontu bateratuan 19,17 milioi euroko diru-sarrerak eta gastuak ageri dira; zenbateko hori ez da ia batere aldatzen aurrekontuen aldaketen bidez.

Aitortutako betebeharrak 14,74 milioi eurokoak dira, eta aitortutako eskubideak, berriz, 14,14 milioi eurokoak. Horrek esan nahi du aurrekontu bateratuaren betetze-maila ehuneko 77 eta ehuneko 74koa dela, hurrenez hurren.

Gastuetan, batez besteko betetze-maila baino apalagoa ageri da inbertsioen kapituluaren —ehuneko 56— eta transferentzia arruntenean —ehuneko 74—. Inbertsioetan, 8,15 milioiko aurreikuspena izanik, 4,54 milioi baizik ez dira bete.

Aitortutako eskubideei dagokienez, inbertsioen besterentzeari, kapital-transferentziei eta zeharkako zergei dagozkien kapituluaren izan den betetze-maila apalak —ehuneko 5, 59 eta 63ko betetze-

maila, hurrenez hurren– esplikatzen du zergatik izan den hori oro har betetze-portzentajea.

Gastuen izaerari begiratzuz gero, gastu arruntek eta kapital- eta finantza-gastuek, gastu guztien ehuneko 65 eta ehuneko 35 osatzen dute, hurrenez hurren. Finantza-zama gastu osoaren ehuneko 5 da.

Diru-sarrera arruntak diru-sarrera guztien ehuneko 73 dira; diru-sarrera horien ehuneko 56 jasotako transferentzietatik datoz. Zorpetze bidezko diru-sarrerak, diru-sarrera guztien ehuneko 4 dira.

Koadro honetan adierazten da zertarako erabili eta nola finantzatu diren gastuko 100 eurotik bakoitza:

Gastuen izaera	Zenbatekoa	Finantza-iturria	Zenbatekoa
Langileak	44	Zerga bidezko diru-sarrerak	36
Bestelako gastu arruntak	20	Transferentziak	56
Inbertsioak	31	Ondare bidezko diru-sarrerak eta beste batzuk	4
Finantza-karga	5	Zorpetzea	4
	100		100

Hona Udalaren 2011rako aurrekontuaren betetzeari buruzko adierazleak eta 2010az geroko bilakaera:

	2010	2011
Aitorturiko betebeharrak, guztira	17.359.312	14.744.213
Kitaturiko eskubideak, guztira	17.970.004	14.141.397
Gastuen betetze-maila (%)	% 73,07	% 76,92
Diru-sarreraren betetze-maila (%)	% 75,65	% 73,76
Ordainketak (%)	% 89,47	% 92,63
Kobrantsa (%)	% 84,62	% 89,25
Gastu arruntak (1etik 4ra)	9.892.440	9.587.794
Funtzionamendu-gastuak (1, 2 eta 4)	9.798.037	9.469.991
Kapital-gastuak (6 eta 7)	6.846.957	4.537.764
Finantza-eragiketengatiko gastuak (8 eta 9)	619.914	618.655
Gastu arruntak (1etik 5era)	11.091.140	10.366.567
Zerga bidezko diru-sarrerak (1etik 3ra)	5.474.701	5.088.916
Kapitaleko diru-sarrerak (6tik 7ra)	6.878.864	3.154.731
Finantza-eragiketengatiko diru-sarrerak (8 eta 9)	-	620.100
Diru-laguntzen mendekotasuna (%)	% 63,00	% 56,36
Zerga bidezko diru-sarrerak / gastu arruntak	% 55,34	% 53,08
Aurrekontuko saldo ez finantzarioa	1.230.606	- 604.261
Aurrekontu-emaizta doitua	-153.977	-526.851
Aurrezki gordina	1.293.103	896.577
Finantza-zama (3 eta 9)	714.317	736.458
Aurrezki garbia	578.786	160.119
Zorpetze maila (%)	% 6,44	% 7,10
Zorpetze muga (%)	% 11,66	% 8,65
Zorpetze-ahalmena (%)	% 5,22	% 1,55
Diruzaintza-gerakina, guztira	1.791.558	780.759
Gastu orokorretarako diruzaintzako gerakina	754.123	331.550
Zor bizia	5.296.713	5.288.110
Zor bizia / diru-sarrera arruntak (%)	% 47,7	% 51,0
Zor bizia / biztanleko	465	464
Zor bizia / Aurrezki gordina	4,10	5,90



Tafallako Udalak, 2011n aurreko ekitaldian baino ehuneko 15 gutxiago gastatu du (2,6 milioi euro); inbertsioko gastuak 2,3 milioi euro murrizteak eragin du funtsean beherapen hori. Beste alde batetik, diru-sarrerak aurreko ekitaldian baino ehuneko 21 gutxiago izan dira, 3,8 milioi euro; beherakada hori inbertsioetarako kapital-transferentziak arras urritu direlako izan da, 2010ean 6,2 milioi euro zirenak, 2011n 3 milioi izatera urritu baitira.

Gastu arruntak ehuneko 3 urritu dira, ondasun arruntetan eta zerbitzutan egindako gastuak urritu eta langile-gastuak mugatu direlako, batez ere; diru-sarrera arruntak ehuneko 7 urritu dira, transferentzia arruntak eta EIOZa urritu direlako, batez ere.

Finantzaz bestelako saldoa (diru-sarrerak ken finantzaz bestelako gastuak) negatiboa da -0,6 milioi gutxiago-; 2010ean, berriz, saldo hori positiboa zen -1,2 milioi-.

Aurrekontu-emaitza doitu negatiboa da -0,53 milioi gutxiago-, 2010ekoa baino negatiboagoa, ekitaldi hartakoa 0,15 milioikoa izan baitzen.

Aurrezki gordina eta garbia, biek ere balio positiboak dituzten arren, ehuneko 31 eta ehuneko 72 urritu dira, hurrenez hurren.

Udalaren zorpetze-maila ehuneko 7,10ekoa da, eta ehuneko 8,65eko muga du; horren ondorioz, zorpetze berri baterako ahalmen ekonomiko pixka bat badu oraindik.

Gastu orokorretarako diruzaintza-gerakina edo hurrengo ekitaldian gastuak finantzatzeko ahalmena neurtzen duen adierazlea positiboa izan zen: 0,33 milioi euro (2010ean izan zena baino ehuneko 56 gutxiago).

Epe luzerako zorra 5,29 milioi eurokoa da, 2010ean zegoenaren ia berdin-berdina; zor hau -biztanle bakoitzeko 464 euroraino iristen dena- udalaren diru-sarrera arruntan ehuneko 51 da, legeak gaur egun zor gehiago egiteko jartzen duen muga, ehuneko 75eko portzentaje-muga baino txikiagoa. 2011n lortutako aurrezki gordinaz baliatuz, 5,9 urte beharko liriteke udalak gaur egun duen zorrari aurre egiteko.

Laburtuz, bada, Tafallako Udalak 2011n duen finantza-egoera nahiko zentzuzko muga batzuen barruan dago; baina, egoera horren adierazle nagusien bilakaera ikusita ondorioz atera daitekeen bezala, krisi ekonomikoaren ondorioak nozitzen ari da. Finantza-egoera arrazoizkoa izate horren arrazoi nagusia gastu arruntak gutxitu izana eta, batez ere, inbertsioak gutxitu izana da; diru-sarrei dagokienez, zergak eta inbertsioei atxikitako transferentziak nabarmen gutxitu dira.

#### IV.4. AURREKO TXOSTENETAN KONTUEN GANBERAK EMANDAKO GOMENDIOEN BETETZE-MAILA

Ganbera honen 2010eko ekitaldiari buruzko txostenari dagokionez (2011ko abenduan argitaratu zen), honako kudeaketa-aholku hau bete dela edo betetzeko bidean dagoela adierazten dugu:

- *Udal planeamendua Lurraldearen Antolamenduari eta Hirigintzari buruzko 35/2002 Foru Legearen zehaztapenetara egokitzea.*

*Oraindik betetzeke daude, txosten honen VI. atalean esaten den moduan, gomendio garrantzitsu hauek, besteak beste:*

- *Aurrekontua onesteari buruz indarrean dauden legeetan ezarritako epeak betetzea.*

- *1993ko udal inbentarioa gaurkotzea, altak eta bajak kontrolatzeko sistema bat ezarritik.*

- *“Hospital de Nuestra Señora de la Caridad” erakundearen izaera juridikoa definitzea.*

Azkenik, Udal honetan eta Nafarroako tokiko sektore publiko osoan eragina duen alderdi orokor bat denez, lehentasun handikoa eta urgentziazkoa iruditzen zaigu Nafarroako Gobernuak Aurrekontuen Egonkortasunari eta Finantzen Egonkortasunari buruzko Lege Organikoan jasota dauden aurrekontuen egonkortasun-printzipioak Foru Komunitate honetako toki-erakundeetan aplikatzeko egokitzea eta garatzea, haien aurrekontuetan eta, horrenbestez, haien finantza-egoeran izan ditzakeen ondorio eta inplikazio praktikoak kontuan hartuta.

**V. 2011ko KONTU OROKOR BATERATUAREN LABURPENA****V.1. AURREKONTU BATERATUAREN BETETZE-EGOERA (EUROTAN)**

## Gastuak kapitulu ekonomikoen arabera

Azalpena	Hasierako aurreikuspena	Aldak.	Behin betiko aurreik.	Aitorturiko betebeharrak	Betetakoa (%)	Ordainketak	Eurotan	
							Ordainketak (%)	Ordaintzeke
1. Langileria-gastuak	6.916.300	-38.700	6.877.600	6.559.472	% 95,37	6.415.100	% 97,80	144.372
2. Ondasun arrunt eta zerbitzuen gastuak	2.831.000	33.104	2.864.104	2.629.306	% 91,80	2.306.797	% 87,73	322.510
3. Finantza-gastuak	129.300	-	129.300	117.803	% 91,11	94.786	% 80,46	23.017
4. Transferentzia arruntak	380.500	900	381.400	281.212	% 73,73	241.997	% 86,06	39.214
6. Inbertsio errealak	8.151.900	2.800	8.154.700	4.537.764	% 55,65	3.980.627	% 87,72	557.138
7. Kapital transf.	5.500	-	5.500	-	-	-	% 0,00	-
9. Finantza-pasiboak	756.600	-	756.600	618.655	% 81,77	618.655	% 100,00	-
Guztira	19.171.100	-1.896	19.169.204	14.744.213	% 76,92	13.657.962	% 92,63	1.086.251

## Diru-sarrerak kapitulu ekonomikoen arabera

Azalpena	Hasierako aurreikuspena	Aldak.	Behin betiko aurreik.	Aitorturiko eskubideak	Betetakoa (%)	Kobrantzak	Eurotan	
							Kobrantzak (%)	Kobratzeke
1. Zuzeneko zergak	2.935.700	-	2.935.700	3.033.857	% 103,34	2.920.298	% 96,26	113.559
2. Zeharkako zergak	630.900	-	630.900	395.350	% 62,66	319.746	% 80,88	75.604
3. Tasak eta bestelako diru-sarrerak	1.701.700	-	1.701.700	1.659.709	% 97,53	1.479.171	% 89,12	180.538
4. Transferentzia arruntak	5.374.700	-	5.374.700	4.920.909	% 91,56	4.616.334	% 93,81	304.576
5. Ondare bidezko diru-sarrerak	370.700	-	370.700	356.742	% 96,23	298.651	% 83,72	58.090
6. Inbertsio errealak besterentzea	2.238.200	-	2.238.200	106.083	% 4,74	94.535	% 89,11	11.548
7. Kapital transf.	5.165.500	-	5.165.500	3.048.648	% 59,02	2.273.031	% 74,56	775.617
9. Finantza-pasiboak	753.700	-	753.700	620.100	% 82,27	620.100	% 100,00	-
Guztira	19.171.100	-	19.171.100	14.141.397	% 73,76	12.621.866	% 89,25	1.519.531

## V.2. AURREKONTUAREN EMAITZA BATERATUA

Kontzeptua	2011ko ekitaldia	2010eko ekitaldia
+ Aitortutako eskubideak	14.141.397	17.970.004
- Aitortutako betebeharrak	-14.744.213	-17.359.312
= Aurrekontu-emaizta	-602.816	610.692
Doikuntzak		
- Finantzaketaren desbideraketa positiboak	-307.134	-854.120
+ Finantzaketaren desbideraketa negatiboak	383.099	89.451
+ Diruzaintzako gerakin likidoaz finantzaturiko gastuak	-	-
= Aurrekontu-emaizta doitua	-526.851	-153.977

## V.3. DIRUZAINZAKO GERAKINAREN EGOERA BATERATUA

Kontzeptua	2011ko ekitaldia	2010eko ekitaldia
+ Kobratzeko dauden eskubideak	2.069.799	3.546.316
+ Diru-sarreraren aurrekontua: egungo ekitaldia	1.489.796	2.788.233
+ Diru-sarreraren aurrekontua: itxitako ekitaldiak	1.319.013	1.038.454
+ Aurrekontuz kanpoko diru-sarrerak	24.651	319.300
+ Ordainketen itzulketak	230	46
- Nekez kobratzeko eskubideak	-755.328	-561.994
- Aplikatzeko dauden diru-sarrerak	-8.563	-37.723
- Ordaintzeko dauden betebeharrak	1.500.279	2.167.251
+ Gastuen aurrekontua: egungo ekitaldia	1.086.435	1.827.751
+ Gastuen aurrekontua: itxitako ekitaldiak	32.180	36.834
+ Diru-sarreraren itzulketak	949	30.684
+ Aurrekontuz kanpoko gastuak	381.265	272.564
- Aplikatzeko dauden gastuak	-550	-582
+ Diruzaintzako funts likidoak	211.239	412.493
+ Finantzaketa-desbideraketa metatu negatiboak	0	0
Diruzaintza-gerakina, guztira	780.759	1.791.558
Diruzaintza-gerakina, finantzaketa duten gastuak direla-eta	449.210	595.318
Diruzaintza-gerakina, atxikitako gastuak direla-eta	0	442.117
Gastu orokorretarako diruzaintzako gerakina	331.549	754.123

## V.4. EGOERA-BALANTZE BATERATUA

## AKTIBOA

Azalpena		Eurotan	
		2011	2010
A	Ibilgetua	37.595.751	34.302.648
1	Ibilgetu materiala	21.555.652	18.718.519
2	Ibilgetu ez-materiala	1.674.506	1.645.608
3	Erabilera orokorrerako azpiegiturak eta ondasunak	0	0
4	Herri-ondasunak	1.082.874	316.178
5	Ibilgetu finantzarioa	13.282.719	13.622.343
C	Zirkulatailea	3.045.479	4.559.109
7	Izakinak	0	0
8	Zordunak	2.833.690	4.146.033
9	Finantza-kontuak	211.789	413.076
Aktiboa, guztira		40.641.230	38.861.757

## PASIBOA

Azalpena		Eurotan	
		2011	2010
A	Funts berekiak	33.843.729	31.369.535
1	Ondarea eta erreserbak	9.251.309	4.039.757
2	Ekitaldiko emaitza ekonomikoak (etekina)	427.233	6.010.507
3	Kapitaleko diru-laguntzak	24.165.187	21.319.271
C	Epe luzeko hartzekodunak	5.288.110	5.286.665
4	Jesapenak, maileguak eta fidantzak, jasotako gordailua	5.288.110	5.286.665
D	Epe laburreko hartzekodunak	1.509.391	2.205.557
5	Aurrekontu itxien hartzekodunak eta aurrekontuz kanpokoak	1.500.829	2.167.834
6	Aplikatzeko dauden kontusailak eta aldizkatzearen ondoriozko doitzeak	8.562	37.723
Pasiboa, guztira		40.641.230	38.861.757

## V.5. GALERA ETA IRABAZIEN KONTU BATERATUA

## Ekitaldiko emaitza arruntak

ZOR			HARTZEKO		
AZALPENA	2011	2010	AZALPENA	2011	2010
3 Hasierako izakinak	-	-	3 Bukaerako erosketak	-	-
39 Izakinen balio-galtzeen hornidura	-	-	39 Izakinen balio-galtzeen hornidura	-	-
60 Erosketak	-	-	70 Salmentak	925.622	927.681
61 Langile-gastuak	5.697.154	5.760.638	71 Ondarearen eta Enpresaren Errenta	972.886	947.305
62 Gastu finantzarioak	117.803	94.403	72 Produkzioari eta inportazioari loturiko tributuak	2.724.750	3.133.180
63 Zergak	-	-	73 Errentaren gaineko zerga arruntak	551.098	542.542
64 Lanak, hornidurak eta kanpo zerbitzuak	2.613.574	2.836.595			
65 Gizarte-prestazioak	878.050	841.981	75 Ustiapenerako diru-laguntzak	-	-
66 Ustiapenerako diru-laguntzak	-	-	76 Transferentzia arruntak	4.920.909	5.198.166
67 Transferentzia arruntak	281.212	358.823	77 Kapitalaren gaineko zergak	153.359	256.607
68 Kapital-transferentziak	-14.925	35.954	78 Bestelako diru-sarrerak	305.751	3.478.218
69 Amortizazio eta horniduretarako zuzkidurak	339.624	-	79 Daukaten helbururako aplikaturiko hornikuntzak	-	1.405.212
Ustiapen-mozkina	641.881	5.960.515	Ustiatzeagatiko galerak		
Guztira	10.554.374	15.888.910	Guztira	10.554.374	15.888.910

## Ekitaldiko emaitzak

AZALPENA	2011	2010	AZALPENA	2011	2010
80 Ekitaldiko emaitza arrunta (saldo zorduna)	-	-	80 Ekitaldiko emaitza arrunta (saldo zorduna)	641.881	5.960.515
82 Ezohiko emaitza (saldo zorduna)	-	-	82 Ezohiko emaitza (saldo hartzekoduna)	-	-
83 Balore-karteraren emaitzak (saldo zorduna)	-	-	83 Balore-karteraren emaitzak (saldo hartzekoduna)	-	-
84 Itxitako aurrekontuetako eskubide eta betebeharren aldaketa (zor-)	214.830	-	84 Itxitako aurrekontuetako eskubide eta betebeharren aldaketa (zor-)	-	49.992
89 Etekin garbia guztira	427.233	6.010.507	89 Galera garbia, guztira	-	-
Guztira	642.063	6.010.507	Guztira	641.881	6.010.507

## VI. IRUZKINAK, ONDORIOZTAPENAK ETA AHOLKUAK

Ondoren, kudeaketaren arlo aipagarrien arabera sailkaturik, Ganberaren iritziz Udalak bere antolamendu-sistemak, prozedurak, kontabilitatea eta barne kontrola hobetzeko hartu beharko lituzkeen neurriei buruzko ondorio, iruzkin eta aholku nagusiak emango ditugu.

### VI.1. ALDERDI OROKORRAK

- 2011ko aurrekontuari 2011ko maiatzaren 19an eman zitzaion behin betiko onespina.
- Kontu Orokorrak ez ditu jasotzen eranskin gisa Udalak kapital guztia berea duen sozietatearen egoera-orri bateratuak.
- Gaur egungo egoera ekonomikoan, aurrekontuak ahalik eta egokien planifikatzeko, ahalik eta zehatzen ezagutu behar da, gure iritzian, udal funtzionarioen montepioko pentsio-sistematik heldu

diren betebeharren gaur egungo balioa. Jakin beharra dago, nolana ere, montepio hori iraungitzen ari dela, lanean diharduen langile berririk sartzen ez denez.

- Udalak bere hornitzaileei ordaintzeko epearen azterketak –aztertu den laginari dagokionez– erakusten duenez, fakturak edo ziurtagiriak jaso eta ordainketa egin den data bitarteko epea 16,58 egun naturalekoa izan da horniduretarako eta zerbitzuetarako, eta 42,69 egun naturalekoa obretarako; gai honetan, beraz, oro har, ongi betetzen da indarrean dagoen araudia. 2011ko ekitaldian ez da ordaindu ez jaso ere legeak uzten duen epea baino gehiago luzatuz berandutzeagatiko interes-erreklamaziorik.
- Ez da ikusi 2011koak izan eta 2012an kontabilizatutako kantitate handiko fakturarik.
- Epe luzerako zorraren amortizazio-egutegia, 2011ko abenduaren 31n zegoen bezala, ondoko koadro honetan agertzen dena da:

Ekitaldia	Amortizazioa	%	Metatutakoa (%)
2012	547.940	% 10,4	% 10,4
2013	547.940	% 10,4	% 20,8
2014	547.940	% 10,4	% 31,2
2015	370.850	7 %	% 38,2
2016-2020	1.854.251	% 35,1	% 73,3
2021-2025	1.233.158	% 23,3	% 96,6
+ 2025	186.030	% 3,4	%100
Guztira	5.288.110	100%	

• Udalak aurkeztutako memoriak ingurumena babestu eta hobetzeko eta klima-aldaketa samurtzeko edota horretara egokitzeko neurriei buruzko atal bat erantsi du.

• Udala zenbait prozedura judizialean sartuta dago, baina, hark eskainitako informazioan oinarrituta, horiek izan ditzaketen ondorio ekonomikoek ez dute eragin ekonomiko nabarmenik izango.

• "Hospital de Nuestra Señora de la Caridad" erakundearen helburua zaharren egoitza kudeatzea da; haren izaera juridikoa, erakunde publiko edo pribatua, definitzeko dago, Ganbera honek askotan eskatu duen bezala.

*Hona aholkuak:*

• *Udalaren aurrekontuak indarrean dagoen legedian ezarritako epeetan egin eta onestea.*

• *Burututako jardueren irudi zehatza osatzeko asmoz, partaidetza osoa Udalarena duen bere sozietatearekin duen balantze bateratuaren egoera Kontu Orokorrean aurkeztea.*

• *Udal-funtzionarioen montepiotik heldu diren betebeharrak aktuarialak zenbatetsi eta kontu orokorrean zenbatespen horren berri jasotzea.*

• *"Hospital de Nuestra Señora de la Caridad" erakundearen izaera publiko edo pribatua definitzea, dagokion araubide juridikoa aplikatzeko eta Udalarekin duen harremana mugatzea.*

## VI.2. LANGILEAK

Langileen gastu bateratua 6,6 milioi eurokoa da; hau da, 2011n sortutako gastu guztien ehuneko 44 eta gastu arrunten ehuneko 68.

2010eko ekitaldiarekin alderatuta, kapitulu honek ehuneko 0,43 egin du behera, ondoko koadroan erakusten den bezala (eurotan):

Langileria-gastuak	2010	2011	Aldea (%)
Goi-karguak	121.560	108.528	-11
Funtzionarioak	1.748.302	1.747.878	0
Langile finkoak	779.476	779.898	0
Aldi baterako lan-kontratupekoak	1.733.610	1.702.468	-2
Gizarte zamak	2.204.756	2.220.701	1
1. kapitulua, guztira	6.587.704	6.559.473	%-0.43

Udalbatzak onartu zuen 2011ko ekitaldiko plantilla organikoan 184 lanpostu daude jasota –horietatik 52 lanpostu bete gabe daude–, koadro honetan erakusten den bezala banatuta:

	Lanpostuak, guztira	Jardunekoak	Lanpostu hutsak	Aldi baterako betetako lanpostu hutsak
Funtzionarioak	55	46	9	8
Langile finkoak	70	31	39	38
Aldi baterako lan- kontratupekoak	45	41	4	0
Administrazio kontratudunak	5	5	0	0
Behin-behinekoak:	9	9	0	0
	184	132	52	46

2011ko abenduaren 31n, Udalean eta haren erakunde autonomoetan 187 pertsonak egiten zuten lan:

Langileak	Udala	Musika- eskola	Kultura Patronatua	Kirol Patronatua	Guztira
Kanpokoak - Izendapen librea	2	-	-	-	2
Funtzionarioak	38	3	1	1	43
Lan-kontratudun finkoak	19	6	1	-	26
Aldi baterako lan-kontratudunak	94	8	5	9	105
Guztira	153	17	7	10	187

Aldi baterako langileen artean 13 daude Tailer Eskolakoak, eta beste 26 Gizarte Enplegutik helduak.

2010eko ekitaldiari dagokionez, langile kopurua 39z urritu da, Babestutako Gizarte Enpleguko 26

langile eta Tailer Eskolako 4 kendu direlako batez ere.

Zehazki Udaleko langileak direnak –153– arlo hauetara atxikirik daude:

Arloak	Zenbat
Administrazio orokorra	14
Udalzaintza	22
Terapia-zerbitzua	4
Hirigintza	6
Obretako brigada	9
Parkeak eta Lorategiak	5
Arlo ekonomikoa	6
Oinarrizko gizarte-zerbitzua	3
Etkez etxeko laguntza	11
Babestutako enplegu soziala	13
Gazteak	4
Tailer-eskola	26
Haur-eskola	18
Gainerako zerbitzuak	12
Guztira	153

Langile-gastuen lagin bat aztertu ondoren, gastu horiek, oro har, ondo kontabilizatuta daudela ondorioztatzen da, eta ordainsariak betetako lanpostuetarako eta erlazio-kategoriarako erabakitakoak direla eta egindako atxikipek zuzenak direla. 2011ko ekitaldian soldata-igoerarik ez dela izan ikusi da orobat.

2011n pentsioren bat jasotzen duten udaleko Montepioko langile kopurua 48 pertsonako da, eta 0,88 milioi euroko gastua izan da kontzeptu honetan.

*Gure aholkuak:*

- *Plantillan dauden lanpostuen eta egiaz betetzen diren lanpostuen arteko erlazioa aztertzea, plantilla organikoa egiazko premietara egokitzeko den egiaztatzeke.*

### VI.3. ONDASUN ARRUNTETAN ETA ZERBITZUETAN EGINDAKO GASTUAK

Ondasun arruntetan eta zerbitzu bateratuetan eginko gastuak 2,7 milioi eurotaraino iritsi dira 2011ko ekitaldian. Kopuru horretatik, Udalarari 2,2 milioi dagozkio, Kultura Patronatuari 287.566 euro, Kirol Patronatuari 147.757 euro, eta Musika Eskolalarari 27.211 euro.

Gastuak ekitaldiko gastu guztien ehuneko 16 hartzen du, eta eragiketa arruntetan gastuen ehuneko 27. 2010. urtearen aldean, ehuneko 8 jaitzi dira.

2011ko ekitaldian esleitutako honako kontratazio-espeditente hau aurkitu dugu (zenbatekoak BEZik gabe):

	Kontratu-mota	Prozedura	Lizitazioaren zenbatekoa	Eskaintzak	Esleipenaren zenbatekoa	Betetako zenbatekoa 2011
Herri-argiteriaren energia-kudeaketa hobetzea	Laguntza-kontratua	Irekia, Europan publizitaterik egin gabe / eskaintza onena	28.630	5	22.800	22.800



Espediente honi eta kapitulu honetan erregistratutako gastuen lagin bati buruz eginiko azterketaren ondorioz, behar diren fakturekin justifikatuta daudela eta egokiro kontabilizatu direla egiaztatu da, baina hobetzeko moduko alderdi hauek ere ikusi dira:

- Zerbitzu batzuek 2011n izan duten gastu-bolumenari eutsiz gero, beharrezkoa izango litzateke zenbatekoari egokitutako kontratazio-prozedura bat.

- Ganbera honek behin eta berriro adierazi duen bezala, kale-argiteria berrikusteko eta mantentzeko zerbitzua kontratatzeko prozedura egin gabe dago oraindik; zerbitzu horren gastua 41.995 eurokoa izan da 2011n.

*Gure aholkuak:*

- *Urteko gastuen bolumena alde aurretik balioets daitekeen kasuetan, dagozkion kontratazio-espeditenteak izapidetzea.*

- *Argiteria publikoa berrikusteko eta mantentzeko zerbitzurako behar den kontratazio-prozedura egitea.*

#### VI.4. INBERTSIOAK

2011rako inbertsio-aurrekontu bateratuan aurreikusitako inbertsioen –8,2 milioi euro– ehuneko 56 gauzatu dira –4,5 milioi euro–. Gastu horrek ekitaldian aitortutako betebeharren guztizkoaren ehuneko 31 hartzen du. Ia inbertsio guztiak udalak egin ditu.

2010eko ekitaldiarekin alderatuta, inbertsioetan egingdako gastua ehuneko 34 gutxitu da.

Kapitulu honetan agertzen den gauzatze-maila apalaren arrazoia aurrekontuan aurreikusita zeuden obrak hastea atzeratu izana izan da gehienbat.

Inbertsioen kapituluko gastu-lagin bat eta 2011n esleitutako kontratazio-espeditente hauek aztertu dira (BEZik gabeko zenbatekoak):

Azalpena	Kontratu-mota	Prozedura	Lizitazioaren zenbatekoa	Eskaintzak	Adjudikazio zenbatekoa	2011n betetako zenbatekoa
Errepidearekiko lotuneko biribilgunea	Lanak	Irekia, Europako mugatik gaindi / eskaintzarik onena	428.175	7	299.723	277.213
Sareak berritzea eta kaleak zolaztatzea	Lanak	Irekia, Europako mugatik gaindi / eskaintzarik onena	571.730	11	422.005	-
Alde zaharreko argiteria berritzea	Lanak	Irekia, European publizitaterik egin gabe / eskaintzarik onena	216.839	3	188.650	-
IV.1 eta IV.2 sektoreetako eremuak hobetzea	Lanak	Irekia, European publizitaterik egin gabe / eskaintzarik onena	577.505	3	404.253	401.686

Eginiko azterketan oinarrituta egiaztatu da bete egiten dela kontratuei buruzko legedia –alderdi nagusietan–, bai kontratazio-espedienteak izapidetzean, bai haiek esleitzean eta betetzean, eta kontabilizaturiko gastuak arrazoizkoak direla.

Orobat azpimarratu nahi dugu aztertu diren espedienteetan beharpen handiak ikusten direla obra horiek esleitzeko zenbatekoetan.

#### VI.5. AURREKONTUKO DIRU-SARRERAK

2011ko ekitaldian aitortutako eskubide bateratuen zenbatekoa 14,14 milioikoa izan da; horietatik, Udalari 13,8 milioi dagozkio, Musika Eskolari 240.123 euro, eta Kultura eta Kirol Patronatuei, 27.154 eta 89.640 euro, hurrenez hurren.

Ehuneko 73 eragiketa arrunten bidezko diru-sarrerak dira, eta gainerakoa kapital-eragiketen bidezkoak.

Diru-sarrera arrunten artean tributu bidezko diru-sarrerak (-5,5 milioi euro) eta transferentzia arruntak (-4,9 milioi euro) nabarmentzen dira. Kapital-eragiketen artean, jasotako kapital-transferentzien kapitulua (3 milioi euro), Tafallako eskualdeko Espazio Eszenikoa eraikitzeke diru-laguntzei dagokie batez ere (1,8 milioi euro).

Diru-sarreren aurrekontuaren betetze-maila ehuneko 74koa izan da; diru-sarrera arruntena ehuneko 94 izan da, eta kapital bidezko diru-sarre-rena ehuneko 46. Azken horien betetze-maila txikia izan da, funtsean, inbertsio errealen besterentzean betetze-maila ere txikia izan delako, ez baitziren ehuneko 5 besterik bete.

2010. urtearen aldean, aitorturiko betebeharrak ehuneko 21 murriztu dira. Hona zehatz-mehatz:

Diru-sarreren kapituluak	Aitorturiko eskubide garbiak, 2010	Aitorturiko eskubide garbiak, 2011	2011/2010 aldea
1. Zuzeneko zergak	2.969.916	3.033.857	%2
2. Zeharkako zergak	962.413	395.350	% -59
3. Tasak, prezio publikoak eta beste diru-sarrera batzuk	1.542.372	1.659.709	%8
4. Transferentzia arruntak	5.198.166	4.920.909	% -5
5. Ondare diru-sarrerak	418.274	356.742	% -15
Gastu arruntak (1etik 5era)	11.091.141	10.366.567	% -7
6. Inbertsio errealen besterentzea	701.957	106.083	% -85
7. Kapital-transferentziak	6.176.907	3.048.648	% -51
9 Finantza-pasiboak	-	620.100	-
Kapitaleko diru-sarrerak (6tik 9ra)	6.878.864	3.774.831	% -45
Diru-sarrerak guztira	17.970.005	14.141.397	% -21

Kapital-transferentziengatiko diru-sarrerak izan duten urritze nabarmena –ehuneko 51– izan da diru-sarrerak horrenbeste urritzeko arrazoia, eta, horrenbestez, urtean zehar gauzatutako inbertsioak ere gutxitzeko arrazoia.

2011n 0,62 milioi euroko epe luzerako mailegu bat hartu zen.

Ondorengo koadroan udal-zerga bakoitzaren arabera aitortutako eskubideen bilakaera erakusten da (eurotan):

Zergak	Aitorturiko eskubideak (2010)	Aitorturiko eskubideak (2011)	Aldea, %
Lurraldeko kontribuzioa	1.785.953	1.807.954	1
Ibilgailuak	542.542	551.098	2
Lursailen balioa handitzea	256.607	153.359	-40
JEZ	384.814	521.446	35
EIOZ	962.413	395.350	-59
Guztira	3.932.329	3.429.207	-13

Oro har hartuta, zerga bidezko diru-sarrerak ehuneko 13 urritu dira; urritze horren arrazoiak lurraren balioen aldaketa eta EIOZ izan dira batez ere. Aipatzekoa da, orobat, Jarduera Ekonomikoen Gaineko Zergaren emendioa, aitortutako eskubide berezi batzuek –131.854 euro– eragina batez ere.

Udalak aplikatzen dituen tasak Toki Ogasunei buruzko 2/95 Foru Legeak jasotzen duen sortako tarte ertain-altuan kokatzen dira, ondoko taula honetan ikus daitekeen bezala:

Tributua	2/1995 Foru Legea	Udala
	0,10 - 0,50	0,472
	1 - 1,4	1,32 - 1,40
-koefizientea	2-3,6 8-20	3,4-3,6 20
lazio eta obren gaineko zerga (EIOZ)	2 - 5	3,1 (aurrekontua 2.500 € baino txikiagoa bada) 5 (aurrekontua 2.500 € baino handiagoa bada)

Tasa hauek aurreko urtean aplikatzen zirenen berdin-berdinak dira.

Balorazio-ponentzia 2011 bukaeran berrikusi da, 2012an aplikatzeko.

Diru-sarreraren aurrekontuko kontusailen lagin baten gainean azterketa egin ondoren, oro har egoki izapidetu eta kontabilizatu direla egiaztatu dugu.

## VI.6. INBENTARIOA – IBILGETU MATERIALA

Udalaren ondasunen inbentarioa 1993an egin zen, eta ez da gaurkotu, nahiz eta udal zerbitzu ezberdinei atxikiriko ondasunen zerrenda gaurkotu bat badagoen, kostu-azterlanerako eginikoa.

Udalaren ondasunen eskuratzeko- eta erregistratze-prozesua burutzeke dago.

Kirol-hiria eraikitzeke erabili diren lurak udalaren jabetzakoak dira, eta formalki ez zaizkio laga udal sozietateari.

Udalak, 2009ko abenduaren 1ean, eskritura publikoan gauzatu zuen "Hospital de Nuestra Señora de la Caridad" entitateari egoitza berria eraikitzeke dohainik egindako ondare-ondasuna den hiri-lursailaren lagapena, 862.963 euroko balioa duena. Lagapen hori baldintzatuta dago erabilera hogeita hamar urtez zahar-etxearena izatera, egoitza hori hirugarrenei lagatzeko eta errentan emateko baimenik gabe. Orain arte lagapen-baldintzak betetzen ari dira.

Hona aholkuak:

- *Udalaren ondasun eta eskubide guztien inbentario balioztatua gaurkotzea eta onestea.*

- *Udalaren ondasunak eskrituratu eta erregistratzeko prozesua burutzea, haien egoera juridikoa eta zertarako erabiltzen diren adieraziz.*

- *Inbentarioko altak eta bajak kontrolatzeko eta jarraitzeko sistema bat ezartzea, haren etengabeko gaurkotzea eta hark kontabilitatean ibilgetuarekin lotura izatea bermatu eta bideratzeko.*

- *Kirol-hiria eraiki den lur-sailak, zeinak udalaren jabetzakoak baitira, lagatzeko akordioa formalizatzea.*

## VI.7. HIRIGINTZA

Tafallako Udalak bere baliabideen bitartez egin ditu hirigintzako lanak, Hirigintza Alorra izeneko organo baten bitartez. 2011ko ekitaldiko plantilla organikoan adierazten denaren arabera, bertako jarduerak egiteko izendatutako langileak honako hauek dira:

- 2 arkitekto.
- Arkitekto tekniko bat.
- 2 administrari.
- Administrari laguntzaile bat.

Horrez gainera, 2011ko ekitaldian, Udalak 15.561 euroko betebeharrak batzuk aitortu ditu, kanpoko hirigintza-aholkularitzagatik.

Tafallako Lurraldearen Antolamenduari buruzko Plana 1994an onetsi zen. Lurraldearen Antolamendu eta Hirigintzari buruzko Foru Legeak hiru urteko epea ezarri zuen –2006ko apirilera bitartekoa– indarrean dauden planeamenduak homologatzeko eta egokitzeko.

Udala hasia da Lurraldearen Antolamenduari eta Hirigintzari buruzko Foru Legean ezarritakora egokitzeko tramiteak egiten, 2011ko maiatzaren 13ko Osoko Udalbatzak Nafarroako Gobernuko Lurraldearen Antolamendu eta Etxebizitza Departamentuarekin sinatzeko hitzarmena onartzeko hartutako erabakiaren bidez. Une honetan hitzarmen hori behin betiko onartzeko dago.

Udalaren lurzoru-ondarea ez da kudeatzen erakundearen gainerako ondasunetatik bereizita. Horri dagokionez, inbentarioan ez da jasotzen ondare hori loturaduna eta bereizita izatea, eta era berean, ez da sortu ondasun horien sarrera eta irteeraren berri emateko erregistroa.

Udalak aurkezturiko oroitidazkian, ekitaldian zehar gauzaturiko hirigintza-jarduerak zehazten dira.

Hirigintzako ekimenen lagin bat aztertu dugu eta oro har ongi tramitatuta daudela ikusi dugu, xehetasun-azterketa bat salbu, azterketa hori tramitatzen eta onartzen arrazoizkoa ez den atzerapen bat ikusi baita.

Gure aholkuak:

- *Hirigintza-planeamendua Lurraldearen Antolamendu eta Hirigintzari buruzko Foru Legearen espezifikazioetara egokitzea.*

- *Udalaren lurzoru-ondarearen inbentarioa eta erregistroa sortzea, kontuan izanda gainerako ondasunetatik bereizita kudeatu behar dela, eta indarrean dagoen legedian jasotako helburuei lotuta dagoela izaeraz.*

## VI.8. "CIUDAD DEPORTIVA TAFALLA, S.A." SOZIETATEA

"Ciudad Deportiva Tafalla, S.A." pertsona bakaerreko sozietatea da, eta Tafallako Udala du akzio-dun bakarra. 2001ean eratu zen, 300.000 euroko kapital sozialarekin. Kapital sozial horretan, bost kapital-gehikuntza egin dira, 13,9 milioioak guztira.

2011ko ekitaldiko urteko kontuak txosten honi erantsiriko memorian sartuta daude eta udaleko kontu-hartzaileak egin zuen horien finantza-kontrolerako berrikusketa.

2011n ez da transferentziarik egin Udalaren eta sozietatearen artean.

Ekitaldiko emaitza 2011ko abenduaren 31n negatiboa da oraindik (-288.328 euro); galerak aurreko urteetakoak baino handiagoak izan dira, ondoko koadroan ikusten den bezala:

	2006	2007	2008	2009	2010	2011
Ekitaldiko emaitzak	-326.476	-323.016	-268.079	-215.659	-251.277	-288.328
Ibilgetuaren amortizazioa	354.875	356.064	330.615	333.308	333.951	334.951
Emaitzak amortizaziorik gabe	28.399	33.048	62.536	117.649	82.674	46.623

2011ko eta 2010eko abenduaren 31ko egoera-balantzeek eta galeren eta irabazien kontuek –urteko kontuetan sarturik daude– honako saldoak erakusten dituzte:

AKTIBOA	2011	2010	PASIBOA	2011	2010
Aktibo ez korrontea	13.249.519	13.579.200	Ondare garbia	13.279.356	13.618.981
Eraikinak	15.333.899	15.333.899	Kapitala	13.917.000	13.917.000
Lanabesak	1.175	1.175	Borondatezko erreserbak	-57.153	-57.153
Bestelako instalazioak	269.156	266.111	Aurreko ekitald. emaitza negatiboa	-1.897.355	-1.646.078
Altzariak	7.004	5.447	Ekitaldiko galerak	-288.328	-251.277
Amortizazio metatua	-2.361.715	-2.027.433	Diru-laguntzak, dohaintzak eta legatuak	1.605.192	1.656.488
Aktibo arrunta	51.640	54.139	Pasibo ez arrunta	0	10.048
Zordunak	3.111	6.803	Pasibo korrontea	21.804	4.309
Epe laburreko inbertsio finantzarioak	48.000	10.954	Epe laburreko zorrak	0	0
Eskudirua	530	36.381	Merkataritzako hartzekodunak	21.804	4.309
Aktiboa, guztira	13.301.160	13.633.338	Ondare garbia eta pasiboa, guztira	13.301.160	13.633.338

ZOR	2011	2010	HARTZEKO	2011	2010
GASTUAK	377.279	349.550	DIRU-SARRERAK	88.952	98.273
Bestelako ustiatze-gastuak	42.811	15.241	Negozio-zifraren zenbateko garbia	37.028	36.019
Konponketa eta kontserbazioa	24.349	7.910	Salgaien salmenta	21.339	20.758
Zerbitzu profesional independenteak	7.159	6.196	Bukatutako produktuen salmentak	15.688	15.261
Banku-zerbitzuak eta antzekoak	10	-	Emandako zerbitzuak	-	-
Hornigaiak	817	860	Bestelako ustiatze bidezko diru-sarrerak	-	10.954
Bestelako zerbitzuak	10.476	275	Diru-laguntzak, dohaintzak eta legatuak	-	10.954
Aparteko gastuak	-	-	Ibilgetu ez finantzarioko diru-laguntzen egozpena	51.297	51.297
Ibilgetuaren amortizazioa	334.282	333.951	Dirulaguntzak, dohaintzak eta kapital-legatuak, ekitaldiko emaitzari transferitutakoak	51.297	51.297
Ibilgetu materialaren amortizazioa	334.282	333.951	Ustiatzeagatiko galerak	288.769	250.922
Ustiatze-etekinak	-	-	Finantza bidezko diru-sarrerak	627	3
Gastu finantzarioak	186	358	Finantza bidezko bestelako diru-sarrerak	627	3
Taldeko enpresen zorreatatikiko interesak	186	358	Emitza finantzarioak. Galerak	-	355
Emitza finantzarioak (etekinak)	441	-	Emitza, zergak baino lehen (galerak)	288.328	251.277
			Ekitaldiko emaitza (galerak)	288.328	251.277

Lan hau egiteko ardura izan duen Ignacio Cabeza del Salvador auditore jaunak hala proposatuta eman da txosten hau, indarrean dagoen araudiak aurreikusitako izapideak bete ondoren.

Iruñean, 2012ko urriaren 9an

Lehendakaria: Helio Robleda Cabezas

**2. ERANSKINA: "HOSPITAL NUESTRA SEÑORA DE LA CARIDAD" ERAKUNDEA**

"Hospital Nuestra Señora de la Caridad" erakunde Administrazio Batzarrak, 2012ko otsailaren 29an eginiko bileran, 2011ko kontuen itxiera

onetsi zuen. Hona hemen kontu horien laburpen bat:

Auditoriarik egin gabeko 2011ko eta 2010eko ekitaldietako egoerari buruzko balantze laburbildu xehetua:

AKTIBOA	2011	2010	PASIBOA	2011	2010
Ibilgetu materiala	7.011.942	7.408.490	Funts berekiak	120.564	253.415
Ibilgetu finantzarioa	361	361	Funts soziala	894.967	894.967
Aktibo zirkulatzaila	14.787	790.134	Aurreko ekitaldietako soberakin negatiboak	-641.552	-389.172
Zordunak	23.647	784.954	Ekitaldiko soberakina	-132.851	-252.380
Diruzaintza	-8.860	5.180	Zenbait ekitalditan banatu beharreko diru-sarrerak	5.229.145	5.574.216
			Epe luzeko hartzekodunak	1.383.157	1.460.000
			Epe laburreko hartzekodunak	294.224	911.353
Aktiboa, guztira	7.027.090	8.198.984	Pasiboa, guztira	7.027.090	8.198.984

2011ko eta 2010eko ekitaldietako galera eta irabazien kontua, auditoria egin gabea, honako hau da:

GASTUAK	2011	2010	DIRU-SARRERAK	2011	2010
-gastuak	1.731.543	1.298.871	Ustiapeneko diru-sarrerak	1.290.025	985.526
	228.782	231.186	Negozio-zifraren zenbateko garbia	1.279.272	974.625
-gastuak	909.294	770.058	Ustiapeneko beste diru-sarrerak	10.753	10.900
	403.070	108.583			
-gastuak	159.977	174.957			
	30.420	14.087			
-mozkina	-	-	I. Ustiapen-galera	441.518	313.345
-gastuak eta antzeko	48.854	50.192	Finantza bidezko diru-sarrerak	6	1.981
-emaitza positiboa	-	-	II. Finantza-emaitza negatiboa	48.848	48.211
	-	-	III. Jarduera arruntengatiko galerak	490.366	361.556
	-	3.617	Ibilgetua besterentzearen etekinak	2.050	4.210
			Ekitaldiko emaitzara transferitutako kapital-subentzioak	355.465	108.583
	357.515	109.176	IV. Ezohiko emaitza negatiboak	-	-
	-	-	V. Zerga aurreko galerak	132.851	252.380
- Etekina	-	-	VI. Ekitaldiko emaitza - Galera	132.851	252.380

## Barañaingo Udalari buruzko fiskalizazio-txostena, 1999ko ekitaldikoa, Kontuen Ganberak egina

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2012ko urriaren 15ean eginiko bilkuran, Eledunen Batzarriari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

Kontuen Ganberak Barañaingo Udalaren 2011ko ekitaldiaz emandako fiskalizazio-txostena ikusirik, ERABAKI DA:

1. Txosten horren edukiaren jakinaren gainean dagoela adieraztea.

2. Erabakia Nafarroako Parlamentuaren Aldizkari Ofizialean argitara dadila agintzea.

Iruñean, 2012ko urriaren 15ean

Ganberako burua: Alberto Catalán Higuera

## Barañaingo Udalari buruzko fiskalizazio-txostena, 2011ko ekitaldikoa, Kontuen Ganberak egina

### AURKIBIDEA

- I. Sarrera (24. or.).
- II. Helburua (27. or.).
- III. Norainokoa eta mugak (27. or.).
- IV. Iritzia (28. or.).
  - IV.1. Udalaren 2011ko ekitaldiko Kontu Orokorra (28. or.).
  - IV.2. Legezkotasuna (28. or.).
  - IV.3. Udalaren 2011ko abenduaren 31ko ekonomia- eta finantza-egoera (28. or.).
  - IV.4. Aurreko txostenetan Kontuen Ganberak emandako gomendioen betetzea (31. or.).
- V. Udalaren 2011ko kontu orokorraren laburpena (32. or.).
  - V.1. 2011ko Aurrekontu bateratuaren betetze-egoera (32. or.).
  - V.2. 2011ko aurrekontuaren emaitza bateratua (33. or.).

V.3. Diruzaintzako gerakinaren egoera-orria 2011ko abenduaren 31n (33. or.).

V.4. 2011ko abenduaren 31ko egoera-balantze bateratua (34. or.).

V.5. Galeren eta Irabazien kontu bateratua (35. or.).

VI. Udalari eta haren mendeko erakundeei buruzko iruzkin, ondorio eta aholkuak (36. or.).

VI.1. Alderdi orokorrak (36. or.).

VI.2. Langileak (37. or.).

VI.3. Ondasun arruntetan eta zerbitzuetan egindako gastuak (38. or.).

VI.4. Inbertsioak (39. or.).

VI.5. Aurrekontuko diru-sarrerak (39. or.).

VI.6. Hirigintza (41. or.).

VI.7. Sozietate eta fundazio publikoak (41. or.).

1 Eranskina: 2011ko ekitaldiari dagokion kontu orokorraren memoria (. or.).

2 Eranskina: Barañain Auditorioa Fundazioa (43. or.).

(Oharra: 1. eranskin hori Foru Parlamentarien esku dago Legebiltzarreko Zerbitzu Orokorretako bulegoetan eta honako web helbide honetan:

[www.cfnavarra.es/camara.comptos](http://www.cfnavarra.es/camara.comptos)).


### I. SARRERA

Kontuen Ganberak, Bere jarduera-programari jarraituz, Barañaingo Udalaren 2011ko Kontu Orokorren arauzkotasunari buruzko fiskalizazioa egin du.

Barañaingo Udalak 1,4 km<sup>2</sup> ditu eta 21.552 biztanle zituen 2011ko urtarrilaren 1ean.

Udalaren eta haren mendeko erakundeen osara honako grafiko honetan ikusten da:





Erakunde horien datu ekonomiko nagusiak honako hauek ziren 2011ko ekitaldiaren amaieran:

- Administrazio publikoaren arloa, Barañaino

udalak berak eta haren erakunde autonomoek, "Lagunak" Udal Zerbitzuak eta "Luis Morondo" Musika Eskolak osatua; hauek dira erakunde hauen daturik garrantzitsuenak (eurotan):

Erakundea	Aitorturiko betebeharrak	Aitorturiko eskubideak	Langileak 2011-12-31n
Udala	11.443.421	11.784.146	147
"Lagunak" Udal Zerbitzua	2.086.778	2.047.581	15
"Luis Morondo" Musika Eskola	913.240	913.330	27
Bateratzeko doitzeak	(382.550)	(382.550)	-
Guztira	14.060.889	14.362.507	189

Udalak bere erakunde autonomoentzat 2011n egin dituen ekarpenak hauek izan dira: 26.550 euro "Lagunak" udal-zerbitzuarentzat eta 356.000 euro "Luis Morondo" musika-eskolakorentzat.

- Enpresa Publikoen sektorea. 2004ko azaroan, Udalak bere onespena eman zion "Baraberri S.L." sozietate mugatua eratzeari; sozietate honen kapital osoa udalarena da. Enpresa honen xedea hiri-gintza-garapeneko zerbitzuen eta Barañainen Garapen Integralerako Zerbitzuan sarturik dauden zerbitzu ekonomikoen kudeaketa da. Sozietatearen kapitala 9.000 eurokoa da. Sozietate hau formalki eratu gabe dago oraindik, eta sortu zenez gero ez du jarduerarik izan.

- Fundazioen Sektore Publikoa. Udalak, 2003ko urtarrilean, Barañain Auditorioa Fundazioa eratu eta bere babespean ezarri zuen; fundazio honen xedea Barañaino Arte Eszenikoen Zentroa kudeaketa eta administratzea da. Fundazio honen balantzea eta emaitzen kontua II. eranskinen daude jasota. 2011ko abenduaren 31n Fundazio honek 8 langile zituen bere plantillan.

- Udala Iruñerriko Mankomunitatean sarturik dago, eta haren bidez ematen ditu uraren ziklo integralaren zerbitzuak, hiri-hondakin solidoen kudeaketa- eta tratamendu-zerbitzuak, eskualdeko hiri-garraiokoak eta ibai-parkearen kudeaketakoak. Taula honetan erakusten da zerbitzu horiek guzti-ek Udalari ekarri dioten gastua:

Zerbitzuak	2011n Udalari eragindako gastuak
Eskualdeko hiri-garraioa	307.164
Ibai Parkea	58.035

Laburbilduz, ematen dituen zerbitzu publiko nagusiak eta haiek emateko modua ondoko taulan ageri direnak dira:

ZERBITZUA	Udala	EEAA	Mankomunitatea	Zerbitzu-kontratuak
Zerbitzu administratibo orokorrak	x			
Musika-eskola		x		
Hirigintza	x			
Uraren ziklo integrala			x	
Hiri hondakinak			x	
Hiri-garraioa			x	
Bideak garbitzea				x
Parkeak eta lorategiak	x			
Udal kiroldegia	x			x
Atletismo-pistak	x			x
Retegi frontoia		x		
Kirol jardueren kudeaketa	x	x		x
Liburutegia	x			
Ludoteka	x			x
Etxeko laguntza	x			x
Babestutako enplegu soziala	x			
Kultur Etxea	x			
Hezkuntza	x			
Euskara	x			
Berdintasuna				x
Gazteak				x
Herritarren Arretarako Bulegoa	x			
Errolda	x			
Hiritarren Partaidetza	x			
Lan-mundura sartzeko Bulegoa				x
Immigrazio Zerbitzua				x
Telezentroa	x			
Mentor Aretoa	x			
Diru-bilketa	x			
Diru-bilketa exekutiboa	x			x

Toki-entitate honi aplika dakioken erregimen juridikoa, 2011ko ekitaldian, honako hauek osatzen dute, funtsean:

- Nafarroako Toki Administrazioari buruzko uztailaren 2ko 6/1990 Foru Legea.
- Nafarroako Toki Ogasunei buruzko 2/1995 Foru Legea.
- Nafarroako Toki Araubidea Gaurkotzeari buruzko uztailaren 2ko 11/2004 Foru Legea.
- Ekainaren 11ko 12/2010 Foru Legea, Defizit publikoa murrizteko neurri bereziak Nafarroako Foru Komunitatean moldatzen dituena.
- Toki Araubidearen Oinarriak Arautzeko apirilaren 2ko 7/1985 Legea.
- Legegintzako 251/1993 Foru Dekretua, Nafarroako Administrazio Publikoen zerbitzuko Langileen Estatutuari buruzkoa.
- Kontratu Publikoei buruzko 6/2006 Foru Legea, 1/2007 Foru Legeak toki entitateei buruz ezarritako berezitasunekin.
- Diru-laguntzei buruzko 38/2003 Lege Orokorra.
- 35/2002 Foru Legea, Lurraldearen Antolamendu eta Hirigintzari buruzkoa.
- Uztailaren 5eko 15/2010 Legea, merkataritza-eragiketen berankortasunaren aurkako neurriei buruzkoa.
- Kontabilitatearen eta aurrekontuen arloan, araubide juridikoa ezartzen dutenak 1998ko irailaren 21eko 270, 271 eta 272 foru dekretuak, Nafarroako toki administrazioarako aurrekontu eta gastu publikoari, aurrekontu-egiturari eta kontabilitateari buruzkoak, dira.
- Barañaingo Udalaren 2011ko aurrekontua betearazteko oinarriak eta udalaren gainerako barne-arauak.

Txostenak sei atal ditu, sarrera hau ere barne. Bigarren atalean, txostenaren helburuak azaltzen dira, eta hirugarrenean, berriz, egindako lanaren norainokoa. Laugarrenean, Udalaren 2011ko Kontu Orokorrari buruz dugun iritzia. Bosgarrenean, kontu orokor horren laburpena, Udalaren eta haren erakunde autonomoen finantza-egoera nagusiekin. Seigarren eta azken atalean, Udalaren antolaketa eta barne-kontrola hobetzeko egokitzat jotzen ditugun iruzkin, ondorioztapen eta aholkuak biltzen dira, arloz arlo.

Horiez gainera, bi eranskin daude: bata, Udalak 2011ko ekitaldiko kontuei buruz eginiko Memoria jasotzen duena, eta bestea, Barañaingo Audito-

ria Fundazioaren kontuekin; kontu hauek, berez, Udalaren Kontu Orokorrean formalki sartzen ez badira ere, eranskin gisa sartzen dira txosten honetan.

Barañaingo Udaleko eta haren menpeko erakunde autonomoetako langileei eskerrak ematen dizkiegu lan hau egiteko eman diguten laguntza-rengatik.

## II. HELBURUA

Nafarroako Toki Administrazioari buruzko uztailaren 2ko 6/1990 Foru Legeari, Nafarroako Toki Ogasunei buruzko martxoaren 10eko 2/1995 Foru Legeari eta Kontuen Ganbera arautzen duen abenduaren 20ko 19/1984 Foru Legeari jarraituz, Barañaingo Udalaren 2011ko ekitaldiko Kontu Orokorraren arauzkotasunaren fiskalizazioa egin dugu.

Txostenak honako puntu hauei buruz dugun iritzia agertzea du helburua:

- Ea Barañaingo Udalaren 2011ko ekitaldiko Kontu Orokorrak udalaren egoeraren irudi zehatza erakusten duen alderdi nabarmen guztietan, hots, ondareari, gastu eta diru-sarreraren aurrekontuaren likidazioari eta 2011ko abenduaren 31ko finantza-egoerari dagokienez, bai eta data horretan amaituriko urteko ekitaldian eginiko eragiketen emaitzei dagokienez ere, aplikatzekoa den informazio finantzario publikoari buruzko lege-esparruari eta, bereziki, bertan jasotako kontularitza-printzipio eta irizpideei jarraituz betiere.
- Zenbateraino bete den Udalak 2011n izandako jarduerari aplikatzekoa zaion legedia.
- Zein den Udalaren finantza-egoera 2011ko abenduaren 31n.
- Zenbateraino betetzen diren Ganbera honek 2010eko ekitaldiari buruzko txostenean emandako aholkuak.

Txosten honetan, Udalean eta haren mendeko erakundeetan ezarritako barne kontroleko sistema, sistema administratiboa eta kontabilitate-nahiz kudeaketa-sistemak hobetzeko edota osatzeko egokitzat jo ditugun aholkuak ere gehitu ditugu.

## III. NORAINOKOA ETA MUGAK

Barañaingo Udalaren 2011ko ekitaldiko Kontu Orokorrak hauek ditu osagai nagusiak:

- Toki-erakundearen eta haren erakunde autonomoen kontuak: Aurrekontuaren betetze-mailari buruzko egoera-orria, ekitaldiko aurrekontu-emi-

tza, diruzaintza-gerakina, egoera-balantzea eta emaitzen kontua.

- Kontu orokorraren eranskinak: egoera-orri bateratuak (Udala eta erakunde autonomoak), memoria, zorraren egoera eta kontu-hartzailtzaren txostena.

Indarrean dagoen legediaren arabera, Barañingo Auditorioa Fundazioaren kontuak Udalaren Kontu Orokorrean sartzen ez badira ere, txosten honen eranskin gisa jarri ditugu.

Erakunde autonomoen kudeaketa administrati-boa eta kontularitzari eta aurrekontuari dagokiona modu deszentralizatuan egiten da.

Lan hau Espainiako Estatuko Kanpo Kontroleko Organo Publikoak Koordinatzeko Batzordeak onetsitako eta Kontuen Ganberaren fiskalizazio-eskuliburuan jasotako sektore publikoaren kontu-ikuskaritzari buruzko printzipioei eta araei jarraituz, eta azterlanaren helburuen eta inguruabarren arabera beharrezkotzat jo ditugun hautaproba edo prozedura tekniko guztiak aplikatuz osatu da; prozedura horien artean laginen teknika edo kontusail edo eragiketa jakin hautatuak berrikusteko teknika erabili dira.

Zehazki, Udalari eta haren erakunde autonomoiei dagokienez, aurrekontuen eta finantzen egoera-orrien edukia eta koherentzia aztertu dira, bai eta aplikaturiko oinarritzko prozedura administrati-boa ere; orobat ebaluatu dira antolaketa, kontabilitate eta barne-kontrolako alderdi nagusiak.

Lehen ere esan den bezala “Baraberi, S.L.” sozietatea formalki eratu gabe dago oraindik 2001ean, eta sortu zenez gero ez du jarduerarik izan.

Barañain Auditorioa Fundazioaren 2011ko urteko kontuei dagokienez, kanpoko profesional batek egindako berrikusketa mugatuko txostena aztertzea izan da batez ere.

Lan honek muga bat izan du, hala ere: ezin izan dugu iritzirik eman Udal honek 2011ko ekitaldian aurrekontu-egonkortasunaren printzipioak zenbateraino bete dituen adieraziz, Nafarroako Gobernuak oraindik ere printzipio horiei Foru Komunitate honetako udaletan aplikatzeko araudi berezia eman ez duelako.

#### IV. IRITZIA

Egin dugun lanaren irismenaren arabera, Barañingo Udalaren 2011ko ekitaldiko Kontu Orokorra aztertu dugu. Kontu hori prestatzea, eta kontuaren edukia ere, Udalaren ardura da, eta laburbilduta jasota dago txosten honen V. atalean.

Gure azterketan oinarriturik, honako iritzi hau ateratu dugu:

#### IV.1. UDALAREN 2011ko EKITALDIKO KONTU OROKORRA

- Udalaren eta haren erakunde autonomoen ondasunen inbentarioa 1992koa da, eta eguneratu gabe dago oraindik; horregatik, ezinezkoa izan da egoera-balantze bateratuko “ibilgetuaren” kontabilitate-saldoaren arrazoizkotasuna egiaztatzea; saldo hori, 2011ko abenduaren 31n, 33,6, milioi eurokoa zen.

Arestian aipaturiko salbuespenaren ondorioei dagokienez izan ezik, Udalaren 2011ko ekitaldiko Kontu Orokorrak alderdi behinenetan zuzen erakusten ditu bere gastuen eta diru-sarreraren aurrekontuen likidazioa, abenduaren 31ko ondare-egoera eta bere eragiketen emaitzak. Halaber, behar adina informazio biltzen du hura egoki interpretatu eta ulertzeko, aplikatzekoa den informazio finantzario publikoko arau-esparruaren arabera, eta, bereziki, hartan biltzen diren kontabilitate-printzipio eta -irizpideen arabera.

Fiskalizazioaren iritzia ezertan ukitu gabe, Kontuen Ganbera honek argi utzi nahi du zer arrisku-egoera eragiten duen gaur egungo krisi ekonomikoko egoerak, finantzaketari dagozkion zer ondorio izan ditzakeen udalaren kontu publikoetan. eta aurrekontuetarako zer eskakizun dituen aurrekontuen egonkortasunerako araudiak. Egoera honetan, hain zuzen, aurrekontuak planifikatzerakoan eta betetzerakoan zorrotz jokatzek eta diru publikoak erabiltzerakoan zorrotzki eta gardentasunez jokatzek oinarritzko premisa izan behar dute herritarren oinarritzko premiei erantzungo dien kudeaketa publiko bat izateko.

#### IV.2. LEGEZKOTASUNA

Egin den lanaren norainokoaren neurrian, esan daiteke 2011ko ekitaldian udalaren eta haren erakunde autonomoen jardura ekonomiko eta finantzarioa oro har legezkontasun-printzipioari jarraituz egin dela.

#### IV.3. UDALAREN 2011ko ABENDUAREN 31ko EKONOMIA- ETA FINANTZA-EGOERA

Udalaren hasierako aurrekontu bateratuan 15,8 milioi euroko diru-sarrerak eta gastuak ageri dira; ekitaldi honetan zehar ez da aurrekontuen aldaketarik egin.

Aitortutako betebeharrak 14,06 milioi eurokoak izan dira eta ehuneko 89ko betetze-maila izan dute. Betetze-mailarik handiena izan duten kapitu-

luak pasibo finantzarioena –ehuneko 100–, langileena –ehuneko 94– eta ondasun arrunten eta zerbitzuena –ehuneko 89– izan dira; alderantziz, inbertsioen eta finantza-gastuen kapitulueta batez besteko betetze-maila baino askoz ere apalagoa izan da –ehuneko 37 eta ehuneko 39, hurrenez hurren–.

Aitortutako eskubideek 14,36 milioi euro hartzen dute guztira, eta betetze-maila ehuneko 91koa da. Zuzeneko zergak eta tasak ia osorik gauzatu dira; zeharkako zergetan, berriz, ehuneko 69koa baizik ez da izan betetze-maila, eta inber-

tsio errealen besterentzeari dagokion kapitulueta, ez da kopuru bat ere gauzatu.

Gastuen izaerari begiratuz gero, gastu arrunten eta inbertsioek, gastu guztien ehuneko 97 eta ehuneko 2 osatzen dute, hurrenez hurren. Diru-sarrei dagokienez, diru-sarrera arruntak diru-sarrera guztien ehuneko 100 dira; diru-sarrera horien ehuneko 50 jasotako transferentzietatik datoz.

Koadro honetan adierazten da zertarako erabili eta nola finantzatu diren gastuko 100 eurotik bakoitza:

Gastuen izaera	Zenbatekoa	Finantza-iturria	Zenbatekoa
Langileak	53	Zerga bidezko diru-sarrerak	50
Bestelako gastu arruntak	43	Transferentziak	50
Inbertsioak	2		
Finantza-karga	2		
	100		100

Hona Udalaren 2011rako aurrekontuaren bete-  
tzeari buruzko adierazleak eta 2010az geroko bila-  
kaera:

Adierazleak	2010	2011
Aitorturiko betebeharrak, guztira	17.008.456	14.060.889
Kitaturiko eskubideak, guztira	18.078.792	14.362.507
Gastuen betetze-maila (%)	90,05	89,20
Diru-sarrerren betetze-maila (%)	95,72	91,11
Ordainketak (%)	92,19	92,81
Kobranta (%)	94,58	95,75
Gastu arruntak (1etik 4ra)	13.845.210	13.550.439
Funtzionamendu-gastuak (1, 2 eta 4)	13.812.327	13.519.249
Inbertsioetan egindako gastuak (6 eta 7)	2.880.495	227.700
Finantza-eragiketengatiko gastuak (8 eta 9)	282.750	282.750
Gastu arruntak (1etik 5era)	14.766.902	14.354.392
Zerga bidezko diru-sarrerak (1etik 3ra)	7.191.179	7.104.894
Kapitaleko diru-sarrerak (6 eta 7)	3.311.890	8.115
Diru-laguntzen mendekotasuna (%)	% 60,02	% 50,30
Zerga bidezko diru-sarrerak / gastu arruntak (%)	% 51,94	% 52,43
Aurrekontuko saldo ez finantzarioa	1.353.086	584.368
Aurrekontu-emaiza doitua	1.350.945	301.618
Aurrezki gordina	954.574	835.143
Finantza-zama (3 eta 9)	315.633	313.940
Aurrezki garbia	638.941	521.203
Zorpetze mailaren (%)	% 2,14	% 2,19
Zorpetze mugaren (%)	% 6,46	% 5,82
Zorpetze-ahalmenaren (%)	% 4,32	% 3,63
Gastu orokorretarako diruzaintzako gerakina	428.199	628.747
Udalaren zor bizia	2.726.957	1.960.858
Zor bizia biztanleko	126	91
Zor bizia / diru-sarrera arruntak, (%)	% 18,47	% 13,66
Zor bizia / Aurrezki gordina	2,86	2,35

Barañaingo Udalak aurreko ekitaldian baino ehuneko 17 gutxiago gastatu du 2011n (ia hiru milioi euro gutxiago); inbertsioko gastuetan 2,7 milioi euro murrizteak eragin du funtsean behera pen hori. Beste alde batetik, diru-sarrerak aurreko ekitaldian baino ehuneko 21 gutxiago izan dira, 3,7 milioi euro; beherakada hori inbertsioetarako kapital-transferentziak arras urritu direlako izan da, 2010ean 3,3 milioi euro zirenak, 2011n 8.115 milioi izatera urritu baitira.

Gastu arruntak ehuneko 2 urritu dira, langile-gastuak urritu direlako, batez ere; diru-sarrera arruntak ehuneko 3 urritu dira, transferentzia arruntak urritu direlako, batez ere.

Finantzaz bestelako aurrekontuen saldoa (diru-sarrerak ken finantzaz bestelako gastuak) positiboa da -0,6 milioi gehiago-; baina 2010ean izan zenaren aldean ia ehuneko 57 urritu da.

Aurrekontu-emaizta doitua 0,3 milioi eurora iritsi da; aurreko urtean, berriz, 1,3 milioi eurokoa izan zen.

Aurrezki gordina eta garbia, biek ere balio positiboak dituzten arren, ehuneko 12 eta ehuneko 18 urritu dira, hurrenez hurren.

Udalaren zorpetze-maila ehuneko 2,19koa da, eta ehuneko 5,82ko muga du; horregatik, hain zuzen, oraindik ere badu zorpetze berri baterako ahalmen ekonomikoa.

Gastu orokorretarako diruzaintza-gerakina edo hurrengo ekitaldian gastuak finantzatzeko ahalmena neurtzen duen adierazlea positiboa izan zen: 0,63 milioi euro (2010ean izan zena baino ehuneko 47 gehiago).

Epe luzeko zor bizia 1,96 milioira iristen da eta 2010ean 2,73 milioi eurokoa zen; hau da, ehuneko 28 urritu da; zor hori -biztanle bakoitzeko 91 euroko zorra- erakundearen diru-sarrera arrunten ehuneko 14 da, gaur egun zorpetze berriak egiteko ehuneko 75eko legezko mugaren azpitik, alegia. 2011n lortutako aurrezki gordinaz baliatuz, 2,3 urte beharko lirateke udalak gaur egun duen zorrari aurre egiteko.

Laburtuz, bada, Barañaingo Udalak 2011n duen finantza-egoerak Ganbera honek 2010ean ikusi zuen hobera egiteko joera bera du, baina, normala denez, krisi ekonomikoren ondorioak sumatzen zaizkio. Hobera egiteko joera horren arrazoi nagusia gastu arruntak gutxitu izana eta, batez ere, inbertsioak gutxitu izana da. Diru-sarrei dagokienez, lurralde-kontribuzioaren eta, bereziki, EIOZaren portaera egokia dela ikusten da, baina aldi berean arras urritu direla jarduera ekonomikoren gaineko zergaren ondoriozko diru-

sarrerak eta, batez ere, inbertsioei atxikitako kapital-transferentziak.

Zorpetze-maila gutxitu egin da 2010ean zena-ekin alderatuta, zor biziaren bolumena arrazoizko mailan dago; izan ere, oraindik ere badu zorpetze-ko tarte edo ahalmen ekonomikoa.

#### IV.4. AURREKO TXOSTENETAN KONTUEN GANBERAK EMANDAKO GOMENDIOEN BETETZEA

Ganbera honek 2010eko ekitaldiari buruz osatutako txostenari dagokionez (2011ko azaroan argitaratua) besteak beste garrantzizko aholku hauek bete gabe jarraitzen dute, txosten honetako VI. atalean azaltzen den bezala:

- *Aurrekontua legez aurreikusitako epean prestatu eta onestea, kudeaketarako oinarrizko tresna izan dadin.*

- *Betebeharrak edo eskubideak eragiten dituen erakunde autonomoen egintza orok egon behar du barne-kontrol ekonomikoren eta legezkoaren mende.*

- *Udal-inbentarioa onartzea, eta dokumentazioaren artxiboa kontrolatzeko eta inbentarioko alden eta baje jarraipena egiteko sistema bat ezartzea, hura etengabe gaurkotzeko eta kontabilitateko ibilgetuarekin duen lotura bermatu eta bideratzeko aukera emango duena.*

- *Ganbera honek behin eta berriro adierazi bezala, dagozkion neurriak hartu behar dira "Baraberri S.L." merkataritza-sozietatearen egoera behin betiko argitzeko.*

- *Fundazioaren urteko kontuak Udalaren kontu orokorrari eranstea, eranskin gisa gutxienez.*

Azkenik, Udal honetan eta Nafarroako tokiko sektore publiko osoan eragina duen alderdi orokor bat denez, lehentasun handikoa eta urgentziazkoa iruditzen zaigu Nafarroako Gobernuak Aurrekontuen Egonkortasunari eta Finantzen Egonkortasunari buruzko Lege Organikoan jasota dauden aurrekontuen egonkortasun-printzipioak Foru Komunitate honetako toki-erakundeetan aplikatzeko egokitzea eta garatzea, haien aurrekontuetan eta, horrenbestez, haien finantza-egoeran izan ditzakeen ondorio eta inplikazio praktikoak kontuan hartuta.

## V. UDALAREN 2011ko KONTU OROKORRA- REN LABURPENA

Ondoren 2011ko egoera-orri bateratu garrantzi-  
tsuenak jasotzen dira (Udala eta erakunde autono-  
moak)

### V.1. 2011ko AURREKONTU BATERATUAREN BETETZE-EGOERA

#### Gastuak kapitulu ekonomikoen arabera

Azalpena	Hasierako aurreikuspena	Aldak.	Behin betiko aurreik.	Aitorturiko betebeharrak	Betetakoa (%)	Eurotan		
						Ordainketak	Ordaintzeke	Ordainketak (%)
1. Langileria-gastuak	7.965.270	-	7.965.270	7.451.115	93,55	7.251.101	200.014	97,32
2. Ondasun arrunt eta zerbitzuen gastuak	5.923.730	-	5.923.730	5.293.515	89,36	4.637.138	656.377	87,60
3. Finantza-gastuak	79.100	-	79.100	31.190	39,43	31.190	0	100,00
4. Transferentzia arruntak	899.900	-	899.900	774.619	86,08	698.185	76.434	90,13
6. Inbertsio errealak	612.880	-	612.880	227.700	37,15	149.497	78.203	65,66
9. Finantza-pasiboak	282.750	-	282.750	282.750	100,00	282.750	0	100,00
<b>Guztira</b>	<b>15.763.630</b>		<b>15.763.630</b>	<b>14.060.889</b>	<b>89,20</b>	<b>13.049.861</b>	<b>1.011.028</b>	<b>92,81</b>

#### Diru-sarrerak kapitulu ekonomikoen arabera

Azalpena	Hasierako aurreikuspena	Aldak.	Behin betiko aurreik.	Aitorturiko eskubideak	Betetakoa (%)	Eurotan		
						Kobrantsak (%)	Kobrantszeke	Kobrantsak (%)
1. Zuzeneko zergak	3.600.000	-	3.600.000	3.492.873	97,02	3.348.161	144.712	95,86
2. Zeharkako zergak	188.000	-	188.000	130.577	69,46	73.218	57.359	56,07
3. Tasak eta bestelako diru-sarrerak	3.509.449	-	3.509.449	3.481.445	99,20	3.289.875	191.569	94,50
4. Transferentzia arruntak	7.975.622	-	7.975.622	7.216.466	90,48	7.002.001	214.465	97,03
5. Ondare bidezko diru- sarrerak	39.074	-	39.074	33.032	84,54	31.706	1.326	95,99
6. Inbertsio errealak besterentzea	337.985	-	337.985	0	0,00	0	0	-
7. Kapital transf.	113.500	-	113.500	8.115	7,15	6.867	1.248	84,63
<b>Guztira</b>	<b>15.763.630</b>		<b>15.763.630</b>	<b>14.362.507</b>	<b>91,11</b>	<b>13.751.828</b>	<b>610.679</b>	<b>95,75</b>



## V.2. 2011ko AURREKONTUAREN EMAITZA BATERATUA

Kontzeptua	2011ko ekitaldia	2010eko ekitaldia
+ Aitortutako eskubideak	14.362.507	18.078.792
- Aitortutako betebeharrak	-14.060.889	-17.008.456
= Aurrekontuaren emaitza	301.618	1.070.336
<b>Doikuntzak</b>		
- Finantzetaren desbideraketa positiboak	-	-
+ Finantzetaren desbideraketa negatiboak	-	280.609
+ Diruzaintzako gerakin likidoaz finantzaturiko gastuak	-	-
= Aurrekontuaren emaitza doitua	301.618	1.350.945

## V.3 DIRUZAINZAKO GERAKINAREN EGOERA-ORRIA 2011ko ABENDUAREN 31n

Kontzeptua	2011ko ekitaldia	2010eko ekitaldia
+ Kobratzeko dauden eskubideak	700.382	1.244.607
+ Diru-sarrerren aurrekontua: egungo ekitaldia	610.679	980.345
+ Diru-sarrerren aurrekontua: itxitako ekitaldiak	681.488	746.276
+ Aurrekontuz kanpoko diru-sarrerak:	21.961	133.529
+ Ordainketen itzulketak		
- Bilketa zaileko eskubideak	-613.681	-615.543
- Aplikatzeko dauden diru-sarrerak	-65	-
(-) Ordaintzeko dauden betebeharrak	2.816.524	3.389.538
+ Gastuen aurrekontua: egungo ekitaldia	1.011.028	1.328.015
+ Gastuen aurrekontua: itxitako ekitaldiak	39.055	40.362
+ Diru-sarrerren itzulketak	-	-
+ Aurrekontuz kanpoko gastuak	1.766.501	2.021.221
- Aplikatzeko dauden gastuak	-60	-60
+ Diruzaintzako funts likidoak	2.744.889	2.573.131
+ Finantzaketa-desbideraketa metatu negatiboak	-	-
<b>Diruzaintzako gerakina, guztira</b>	<b>628.747</b>	<b>428.199</b>
Diruzaintza-gerakina, finantzaketa duten gastuak direla-eta	-	-
Diruzaintza-gerakina, atxikitako gastuak direla-eta	-	-
Gastu orokorretarako diruzaintzako gerakina	628.747	428.199

## V.4. 2011KO ABENDUAREN 31ko EGOERA-BALANTZE BATERATUA

## AKTIBOA

		(Eurotan)	
Azalpena		2011	2010
A	Ibilgetua	33.586.335	33.359.238
1	Ibilgetu materiala	24.465.049	24.047.478
2	Ibilgetu ez-materiala	280.741	472.868
3	Erabilera orokorrerako azpiegiturak eta ondasunak	8.840.545	8.838.892
4	Herri-ondasunak	-	-
5	Ibilgetu finantzarioa	-	-
C	Zirkulatzaillea	4.059.077	4.433.517
7	Izakinak	-	-
8	Zordunak	1.314.128	1.860.326
9	Finantza-kontuak	2.744.949	2.573.191
Aktiboa, guztira		37.645.413	37.792.755

## PASIBOA

		(Eurotan)	
Azalpena		2011	2010
A	Funts berekiak	32.333.286	31.624.928
1	Ondarea eta erreserbak	16.922.147	15.483.927
2	Ekitaldiko emaitza ekonomikoak (etekina)	700.242	1.438.219
3	Kapitaleko diru-laguntzak	14.710.897	14.702.782
C	Epe luzeko hartzekodunak	2.550.711	2.891.611
4	Jesapenak, maileguak eta fidantzak, jasotako gordailua	2.550.711	2.891.611
D	Epe laburreko hartzekodunak	2.761.417	3.276.215
5	Itxitako aurrekontuetako hartzekodunak eta aurrekontuez kanpokoak	2.761.352	3.276.215
6	Aplikatzeko dauden kontusailak eta aldizkatzearen ondoriozko doitzeak	64,86	-
Pasiboa, guztira		37.645.413	37.792.755

## V.5. GALEREN ETA IRABAZIEN KONTU BATERATUA

## Ekitaldiko emaitza arruntak

ZOR			HARTZEKO		
AZALPENA	2011	2010	AZALPENA	2011	2010
3 Hasierako izakinak	-	-	3 Bukaerako erosketak	-	-
39 Izakinen balio-galtzeen hornidura	-	-	39 Izakinen balio-galtzeen hornidura	-	-
60 Erosketak	-	-	70 Salmentak	2.809.663	2.804.967
61 Langileen gastuak	7.445.538	7.780.724	71 Jabetza eta enpresa errenta	560.078	510.986
62 Gastu finantzarioak	31.190	32.883	72 Produkzioari eta inportazioari loturiko tributuak	2.436.768	2.453.785
63 Zergak	-	-	73 Errentaren gaineko zerga arruntak	973.565	967.244
64 Lanak, hornidurak eta kanpo zerbitzuak	5.365.713	5.252.066			
65 Gizarte-prestazioak	9.782	9.945	75 Ustiapenerako diru-laguntzak	-	-
66 Ustiapenerako diru-laguntzak	-	-	76 Transferentzia arruntak	7.243.016	7.543.124
67 Transferentzia arruntak	725.369	774.682	77 Kapitalaren gaineko zergak	211.153	315.305
68 Kapital-transferentziak	-	-	78 Bestelako diru-sarrerak	144.736	745.188
69 Amortizazio eta horniduretarako zuzkidurak	-	-	79 Daukaten helbururako aplikaturiko homikuntzak	-	-
Ustiapen-mozkina	801.386	1.490.297	Ustiatzeagatikoa galerak	-	-
Guztira	14.378.978	15.340.597	Guztira	14.378.978	15.340.597

## Ekitaldiko emaitzak

AZALPENA	2011	2010	AZALPENA	2011	2010
80 Ekitaldiko emaitza arrunta (saldo zorduna)	-	-	80 Ekitaldiko emaitza arrunta (saldo zorduna)	1.490.297	331.913
82 Ezohiko emaitza (saldo zorduna)	-	-	82 Ezohiko emaitza (saldo hartzekoduna)	-	-
83 Balore-karteraren emaitzak (saldo zorduna)	-	-	83 Balore-karteraren emaitzak (saldo hartzekoduna)	-	-
84 Itxitako aurrekontuetako eskubide eta betebeharren aldaketa (zor-saldoa)	63.556	0	84 Itxitako aurrekontuetako eskubide eta betebeharren aldaketa (hartzeko-saldoa)	1.328	5.416
89 Etekin garbia, guztira (saldo hartzekoduna)	1.428.069	337.329	89 Galera garbia, guztira (saldo zorduna)	-	-
Guztira	1.491.625	337.329	Guztira	1.491.625	337.329

## VI. UDALARI ETA HAREN MENDEKO ERAKUNDEEI BURUZKO IRUZKIN, ONDORIO ETA AHOLKUAK

Ondoren, kudeaketaren arlo esanguratsuenen arabera sailkaturik, Ganberaren iritziz Udalak eta haren mendeko erakundeek beren antolamendusistemak, prozedurak, kontabilitatea eta barne kontrola hobetzeko hartu beharko lituzketen neurriei buruzko ondorio, iruzkin eta aholku nagusiak emango ditugu.

### VI.1. ALDERDI OROKORRAK

- 2011rako behin betiko aurrekontua 2011ko ekainaren 2an onartu zen.

- Udalaren ondasunen inbentarioa 1992koa da. Inbentario hori ez zen modu formalean onetsi, eta ez da gaurkotu ere.

- Kontabilitatearen arloan indarra duen foru-araudia betez, balantze honetako epe luzerako hartzekodunen kontuak Udalak inbertsioak finantzatzeko hitzartuta dituen kredituen muga islatzen du; gure iritzian, ordea, erabilitakoa baizik ez izatez izango litzateke egokiena.

- Udalak 1,4 milioi euroko muga duen diruzaintzako epe laburrerako kreditu bat hitzartu du azkeneko ekitaldi hauetan, unean uneko ordaindu

beharrei erantzuteko. Kreditu horretatik 2011ko abenduaren 31n erabilitako kantitatea 25.204 eurokoa zen.

- Ez da ikusi 2011koak izan eta 2012ko aurrekontuan kontabilizatutako kantitate handiko fakturarik.

- Udalak bere hornitzaileei ordaintzeko epearen azterketak –aztertu den laginari dagokionez– erakusten duenez, fakturak jaso eta ordainketa egin den data bitarteko epea 31 egun naturalekoa izan da; gai honetan, beraz, oro har, ongi betetzen da indarrean dagoen araudia. 2011ko ekitaldian ez da ordaindu ez jaso ere legeak uzten duen epea baino gehiago luzatuz berandutzeagatik interes-erreklamaziorik.

- Erakunde Autonomoen kudeaketa administrazioa eta kontularitzari dagokiona modu deszentralizatuan egiten da, barne-kontrolerako udal-organoen parte-hartzerik gabe. Horien jarduera a posteriori egiten da, eta aurrekontuaren eta haren kitapenaren espedientearen azterketan jartzen du batez ere arreta.

- Epe luzerako zorraren amortizazio-egutegia, 2011ko abenduaren 31n zegoen bezala, ondoko koadro honetan agertzen dena da:

Ekitaldia	Amortizazioa (eurotan)	(%)	Metatutakoa (%)
2012	282.750	14,42	14,42
2013	282.750	14,42	28,84
2014	282.750	14,42	43,26
2015	282.750	14,42	57,68
2016-2018	848.250	42,32	100

- Udala zenbait prozedura judizialean sartuta dago, baina, hark eskainitako informazioan oinarrituta, horiek izan ditzaketen ondorio ekonomikoek ez dute eragin ekonomiko nabarmenik izango.

Gure aholkuak:

- *Aurrekontua legez aurreikusitako epean prestatu eta onestea.*

- *Udal-inbentarioa onartzea, eta dokumentazioaren artxiboa kontrolatzeko eta inbentarioko alden eta bajen jarraipena egiteko sistema bat ezartzea, hura etengabe gaurkatzeko eta kontabili-*

*tateko ibilgetuarekin duen lotura bermatu eta bideratzeko aukera emango duena.*

- *Egoeraren balantzeko ibilgetuari dagozkion kontusailletako kontabilitate-saldoak berrikustea eta, hala badagokio, erregularizatzea, entitatearen ondarearen osaera behar bezala erakutsi dezan.*

- *Betebeharrak edo eskubideak eragiten dituen erakunde autonomoen egintza orok egon behar du barne-kontrol ekonomikoaren eta legekoaren mende.*

## VI.2. LANGILEAK

Langileen gastu bateratua 7,45 milioi eurokoa da; hau da, 2011n sortutako gastu guztien ehuneko 53 eta gastu arrunten ehuneko 55.

2010eko ekitaldiarekin alderatuta, kapitulu horrek ehuneko 4 egin du behera, ondoko koadroan erakusten den bezala (eurotan):

1. kapitulua	2010	2011	Aldea, %
Goi-karguak	153.421	137.085	-11
Kabineteetako aldi baterako langileak	145.201	138.860	-4
Funtzionarioak	1.252.135	1.256.242	0
Langile finkoak	2.520.215	2.409.773	-4
Aldi baterako lan-kontratupekoak	1.217.984	1.030.167	-15
Gizarte-zamak	2.495.848	2.478.988	-1
1. kapitulua, guztira	7.784.804	7.451.115	-4

Udalbatzak onartu zuen 2011ko ekitaldiko plan-tilla organikoan 161 lanpostu daude jasota –horietatik 42 lanpostu bete gabe daude–, ondoko koadro hauetan erakusten den bezala banatuta:

	Lanpostuak	Jardunean	Lanpostu hutsak	Amortizatu beharreko lanpostuak
Izendapen askea	5	5	-	-
Funtzionarioak	56	25	31	-
Langile finkoak	100	85	11	4
Guztira	161	115	42	4

2011ko abenduaren 31n, Udalean eta haren erakunde autonomoetan 189 pertsonak egiten zuten lan:

Langileak	Udala	S.M. Lagunak	Musika-eskola	Guztira
Udalbatzarkideak	2	-	-	2
Aldi baterako langileak - Izendapen askea	4	-	-	4
Funtzionarioak	25	-	-	25
Lan-kontratudun finkoak	53	15	15	83
Aldi baterako lan-kontratudunak	36	-	12	48
Administrazio-kontratudunak	17	-	-	17
Babestutako enplegu soziala	10	-	-	10
Guztira	147	15	27	189

2010. urtearen aldean, langile-kopurua pertsona batean igo da, abenduaren 31ko datuak alderatuz gero.

Zehazki Udaleko langileak direnak arlo hauetara atxikirik daude:

Arloak	Zenbat
Zerbitzu Orokorrak	24
Udaltzaingoa	28
Ekonomia-gaiak	6
Kultura	8
Kirola	2
Gizarte Zerbitzuak	23
Hirigintza	22
Hezkuntza	34
Guztira	147

Langile-gastuen lagin bat aztertu ondoren, gastu horiek, oro har, ondo kontabilizatuta daudela ondorioztatzen da, eta ordainsariak betetako lanpostuetarako eta lan-harremanaren kategoriarako erabakitakoak direla eta egindako atxikipean zuzenak direla. 2011ko ekitaldian soldata-igoerarik ez dela izan ikusi da orobat.

Administrazio-kontratua dutenek familiari dagokion laguntza jasotzen dute.

Administrazio-kontratuak arautzen dituen 68/2009 Foru Dekretuak agintzen duenez, era horretako kontratua duten langileek ezingo dute graduari eta familiari dagokion ordainsaririk jaso, eta bada Toki Administrazioako Departamentuaren azkenaldiko jakinarazpen bat, 2012ko otsailekoa, gai horixe berriro gogoratzen duena.

*Gure aholkuak:*

2. kapitulua	2.010	2.011	Aldea (%)
Errentamenduak	30.478	29.824	-2
Konponketak, mantentze-lana eta kontserbazioa	1.082.103	1.102.580	2
Inbentariatu ezin den materiala	87.308	89.309	2
Hornigaiak	1.068.437	1.096.879	3
Komunikazioak	85.138	54.118	-36
Garraioak eta pleitak	125.068	124.854	0
Aseguru-primak	97.751	86.471	-12
Zenbait gastu	521.478	529.055	1
Beste enpresa batzuek egindako lanak	2.095.158	2.176.821	4
Zerbitzua dela-eta emaniko kalte-ordainak	4.923	3.603	-27
Guztira	5.197.842	5.293.514	% -2

• *Plantillan dauden lanpostuen eta egiaz betetzen diren lanpostuen arteko erlazioa aztertzea, plantilla organikoa egiazko premietara egokitzen den egiaztatzeko.*

### VI.3. ONDASUN ARRUNTETAN ETA ZERBITZUETAN EGINDAKO GASTUAK

Ondasun arruntetan eta zerbitzuetan eginiko gastuek 5,3 milioi euro egin dute 2011n, guztira; kopuru hori ekitaldian aitortutako gastuen ehuneko 38 eta eragiketa arrunten gastuen ehuneko 39 da. 2010ean izan zenarekin alderatuta, ia ehuneko 2 egin du gora.

Kapitulu honetako gastuen betetze-maila, eta 2010ean izan zenarekiko alderaketa ondoko koadro honetan adierazten da:

Horrez gainera, kapitulu honi atxiki zaizkion kontratazio-espeditente hauek aztertu ditugu (zenbatekoak eurotan, BEZ gabe):

Azalpena	Kontratu mota	Adjudikatze prozedura	Lizitazioaren zenbatekoa	Eskaintzak	Adjudikazio zenbatekoa	2011n betetakoa
Ikastetxeetako eta haur-eskoletako garbiketaz-zerbitzua	Laguntza-kontratua	Irekita eskaintza onenarentzat	540.000	7	491.207	491.207
Gizarte-ongizateko etxeko laguntza-zerbitzua	Laguntza-kontratua	Irekia, Europan publizitaterik egin gabe / eskaintzarik onena	77.861	2	77.420	77.400
Ondasun-asegurua	Laguntza-kontratua	Irekia, Europan publizitaterik egin gabe / eskaintza onena	36.700	2	29.444	29.444

Azterketa horren eta kapitulu honetan erregistratutako gastuen lagin bati buruz eginiko azterketaren ondorioz, gastuak justifikatuta daudela, behar bezala kontabilizatu direla eta egokiro izapidetu direla egiaztatu da, eta ez dela aplikatzekoa den araudiaren urratze larri ikusi.

Nolanahi ere, esan beharra dago eskaintza ekonomikoa baloratzeko irizpide gisa batez besteko aritmetikoan oinarritzen den formula bat aplikatzen dela aztertu den lehenengo kontratuan. Kasu horretan eskaintza ekonomikoetan merkeenaren hurrengoa esleitu bazen ere, batez besteko aritmetikoan oinarritzen diren balorazio-irizpide horiek ez dira beti-beti izaten erakundearentzat egokiak.

Udalak diruzaintzako 1,4 milioi euroko kreditu bat ere hitzartu zuen, dagokion kontratazio-prozeduraz baliatuz. Hiru eskaintza jaso ziren, eta batez ere erabilitako diruaren interes-motari begiratuz egokien irizitakoari esleitu zitzaion.

*Gure aholkua:*

- *Kontratazio-prozesuetan, esleitzeko irizpide gisa, eskaintzarik merkeena aukeratzeko irizpideari lehentasuna ematea.*

#### VI.4. INBERTSIOAK

2011. urterako behin betiko aurrekontuan aurreikusitako inbertsioen (0,6 milioi euro) ehuneko 37 bete da, eta 0,23 milioira iritsi da; hau da, ekitaldi-aitortutako betebeharrak guztien ehuneko 2.

Kapitulu honetako betetze-maila apal horren arrazoia Udalak gastuak murrizteko egindako poli-

tika izan da batez ere. 2010ekoekin alderatuta, ehuneko 92 jaitsi dira inbertsioak, hau da, 2,6 milioi euro gutxiago.

2011n ez da izan obra-kontratuak esleitzeko espeditenterik.

Gastuen lagin bat aztertu ondoren, espeditentek izapidetzean dagokien kontratazio-araudia, oro har, bete egiten dela ikusi da.

#### VI.5. AURREKONTUKO DIRU-SARRERAK

2011n, aitortutako eskubide bateratuak 14,4 eurokoak izan dira; horietatik, ehuneko 99,94 eragiketa arruntengatiko diru-sarrerari dagozkien, eta ehuneko 0,06, berriz, kapital-eragiketengatiko diru-sarrerari.

Kapitulu honetako betetze-maila ehuneko 91koa izan da; bereziki aipatzekoa da egiazko inbertsioen besterentzerik ia ez dela egin  $-0,33$  milioi euroko diru-sarrerak zeuden aurreikusita-, eta zeharkako zergen, hau da, EIOZen, betetze-maila oso apala izan dela, ehuneko 69.

Diru-sarrera arruntan artean tributu bidezko diru-sarrerak (7,1 milioi euro) eta transferentzia arruntak (7,2 milioi euro) nabarmentzen dira. Kapital-eragiketen ondoriozko diru-sarrerak 8.115 euro baizik ez dira izan.

2011n ez da izan hirigintza-eragiketengatiko diru-sarrerarik.

2010. urtearen aldean, aitorturiko betebeharrak ia ehuneko 21 murriztu dira. Hona zehatz-mehatz (eurotan):

Diru-sarreraren kapituluak	Aitorturiko eskubide garbiak, 2010	Aitorturiko eskubide garbiak, 2011	2011/2010 aldea
1. Zuzeneko zergak	3.539.260	3.492.873	-1
2. Zeharkako zergak	198.578	130.577	-34
3. Tasak, prezio publikoak eta beste diru-sarrera batzuk	3.453.341	3.481.445	1
4. Transferentzia arruntak	7.538.824	7.216.466	-4
5. Ondare bidezko diru-sarrerak	36.899	33.032	-10
Diru-sarrera arruntak (1etik 5era)	14.766.902	14.354.392	% -3
6. Inbertsio errealen besterentzea	-	-	
7. Kapital-transferentziak	3.311.890	8.115	-100
8. Finantza-aktiboak	-	-	
9. Finantza-pasiboak	-	-	
Kapital-sarrerak eta finantza-eragiketenak (6tik 9ra)	3.311.890	8.115	-100
Diru-sarrerak guztira	18.078.792	14.362.507	% -21

Kapital-transferentziengatik diru-sarrerak izan duten urritze nabarmena –ehuneko 99,75– izan da diru-sarrerak horrenbeste urritzeko arrazoia.

Ondorengo koadroan udal-zerga bakoitzaren arabera aitortutako eskubideen bilakaera erakusten da (eurotan):

Diru-sarreraren kapituluak	Aitorturiko eskubideak (2010)	Aitorturiko eskubideak (2011)	Aldaketa, ehunekotan
Lurraldeko kontribuzioa	2.017.333	2.085.447	3
Ibilgailuak	967.244	973.565	1
Lursailen balioa handitzea	316.809	213.117	-33
Jarduera Ekonomikoen Gaineko	237.874	220.744	-7
EIOZ	198.578	130.577	-34
Guztira	3.737.838	3.623.450	% -3

Kontribuzioak ongi eusten diola ikusten da, jarduera ekonomikoarekin loturik dauden gainerako zergak ez bezala, horiek nabarmen jaitsi baitira.

Udalak aplikatutako tasak Toki Ogasunei buruzko 2/95 Foru Legeak jasotzen duen sortako tarte ertain-altuan kokatzen dira, ondoko taula honetan ikus daitekeen bezala:

KONTZEPTUA	2/1995 Foru Legea (%)	Udalak aplikatuak (%)
Lurraldeko kontribuzioa	0,10 eta 0,50 bitarte	0,255
Jarduera Ekonomikoen Gaineko Zerga	1 - 1,4 bitartean	1,40
Lurren balioaren gaineko zerga		
Gaurkotze-koefizientea	2 - 3,6 bitartean	3
Zerga mota	8 - 20 bitartean	11,55
Eraikuntza, instalazio eta obren gaineko zerga (EIOZ)	2 – 5 bitartean	5



Tasa hauek aurreko urtean aplikatzen zirenen berdin-berdinak dira.

Balorazio-ponentzia azkeneko eguneratzea 2000. urtean onartu zen, 2001etik aurrera indarrean sartzeko; beraz, askoagatik gainditu da azaroaren 21eko 12/2006 Foru Legeak, Nafarroako Lurralde Aberastasunaren Erregistroari eta Katastroei buruzkoak balorazio-ponentzia derrigor eguneratzeko jartzen duen bost urteko epea.

Diru-sarreraren aurrekontu bateratuko kontusailen lagin baten gainean azterketa egin ondoren, aplikatutako tasak oro har zuzen aplikatu eta konbilitatu direla egiaztatu dugu.

Gure aholkua:

- Balorazio-ponentzia Nafarroako Lurralde Aberastasunaren Erregistroari eta Katastroei buruzko azaroaren 1eko 12/2006 Foru Legearen aurreikuspenen arabera berrikustea.

## VI.6. HIRIGINTZA

Barañaingo Udalak bere baliabideen eta besteren bitartez egiten ditu hirigintzako lanak, Hirigintza Alorra izeneko organo baten bitartez; organo horretan diharduten pertsonak hauek dira:

- Arkitekto tekniko bat.
- Administrazioko bi langile.
- Udaleko obra-lantaldearen arduradun bat.

Horrez gainera, 2011n Udalak hirigintza-gaietarako kanpoko aholkularitza bat izan du, era hone tan osatua:

- Ingeniaritzako enpresa bat; haren zerbitzuetarako 2011ko ekitaldian 8.926 euroko betebeharrak aitortu ziren.

- Hirigintzako aholkularitzako bi enpresa (bat otsaila arte eta bestea martxotik aurrera); haien zerbitzuetarako 2011ko ekitaldian 22.339 euroko betebeharrak aitortu ziren.

Barañaingo Udaleko hirigintza-antolamenduko plan orokorra Ingurumen, Lurraldearen Antolamendu eta Etxebizitza Kontseilariaren martxoaren 7ko 137/1991 Foru Aginduz onartu zen. Planeamendu hori ia-ia osorik beteta dago.

Lurraldearen Antolamenduari eta Hirigintzari buruzko 35/2002 Foru Legeak hiru urteko epea ezarri zuen –2006ko apirilera bitartekoa– indarrean zeuden planeamenduak homologatzeko eta moldatzeko. Gaur egun arte, Barañaingo udalak ez du abiatu Lurraldearen Antolamenduari eta Hirigintzari buruzko Foru Legean ezarritakora egokitzeko tramiterik.

2010eko otsailean Osoko Udalbatzarrak Udalaren lurzoru-ondarea eta haren erregistroa eratzea onartu bazuen ere, harrez gero ez da ezer egin horri dagokionez. 2011n ez da Udalaren lurzoru-ondareko ondasunen besterentzerik izan.

Hirigintza-hitzarmenen erregistroan hiru hitzarmen daude jasota: bat 2006koa, beste bat 2008koa eta hirugarrena 2012koa.

2011n ez da hirigintzako jarduerarik izan, UC-21 unitateko lursail batzuei buruzko xehetasun-azterketa bat salbu.

Gure aholkua:

- *Hirigintza-planeamendua Lurraldearen Antolamendu eta Hirigintzari buruzko Foru Legearen espezifikazioetara egokitzea.*

- *Lurzoruaren Udal Ondarea udalaren gainetako ondasunetatik bereizirik eratzea eta kudeatzea, lursailei eta eskudiruari dagozkien sarrerak eta irteerak bereizita erregistratuz, eta hura indarrean den araudian ezarritako xedeetarako erabiltzea.*

## VI.7. SOZIJETATE ETA FUNDAZIO PUBLIKO-AK.

### VI.7.1. "Baraberri S.L." merkataritza-sozietatea

2004ko azaroan, Udalak "Baraberri S.L." sozietate mugatua eratzea onartu zuen; sozietate horren kapital osoa udalarena da. Enpresa honen xedea hirigintza-garapeneko zerbitzuen eta Barañainen Garapen Integralerako Zerbitzuan sarturik dauden zerbitzu ekonomikoen kudeaketa da.

Sozietatearen kapitala 9.000 eurokoa da. 2006ko irailaren 13an, Udalak zenbateko hori gordailatu zuen, hark sozietate-kapitalari eginiko ekarpenaren ordainketa gisa, "Baraberri S.L. en constitución" izenean dagoen banku bateko kontu batean.

Harrez gero, banku-entitate hori sozietatea eratzeko eskrituren kopia jasotzeko zain dago, eta kontu horretan gorde ditu funtsak. Sozietatea eratzeko gelditurik dago, bere garaian notaritzara eraman dako dokumentuetako bat iraungita zegoelako eta, horregatik, sozietatearen eraketa ezin izan zelako eskritura publikora eraman.

Gure aholkua:

- *Ganbera honek behin eta berriro adierazi bezala, dagozkion neurriak hartzea "Baraberri S.L." sozietatearen egoera behin betiko argitzeko.*

### VI.7.2. Barañain Auditorioa Fundazioa

2003ko urtarrilaren 17an, Barañaingo Udalak "Fundación Auditorio Barañain / Barañain Auditorio Fundazioa" delakoa eratu eta bere babespean hartu zuen. Fundazio honen xedea Barañaingo Arte Eszenikoen Zentroa, udalarena, kudeatu eta administratzea da.

2011ko ekitaldiko kontu laburtuak –txosten honen I. eranskin gisa erantsi direnak– kanpoko profesional batek berrikusi ditu, modu mugatuan; profesional horrek kontratazioen inguruko gaietan eta urteko kontuen aurkezpenarekin zerikusia dutenetan jarri du, funtsean, arreta. Txosten honek ondorioz ateratzen du:

a) 2011n egindako kontratazioak berrikusita, haien kontrol- eta ikuskatze-prozedurak behar bezala aplikatu direla, bai kontratazioak onartzera-koan bai kontratazio horien euskarria den dokumentazioa artxibatzerakoan.

b) 2011ko urteko kontuak berrikusita, erakundearen barneko kontrol-sistema osatzen duten kontrol-mekanismoek (eragiketarako behar diren dokumentuak egiaztatzea: kontratuak eta dagozkien fakturak, ordainketa-egiaztariak, eragiketa horien frogak, eta abar) eta gainbegiratzeko mekanismoek ongi funtzionatu dutela ikusi da.

2011ko abenduaren 31n, Fundazioaren plantilla osatzen zuten langileak 8 ziren guztira; ez da, beraz, aurreko ekitaldiari buruz aldaketarik izan.

Fundazioak, 2011ko ekitaldian, 684.447 euroko diru-sarrerak izan zituen, eta 683.642 euroko gastuak; beraz, 805 euroko superabita izan zuen. Gastu eta diru-sarrera horiek aurreko urtekoak baino ehuneko 9 gutxiago izan dira.

Langileen gastuei dagokionez, aipatzekoa da 2010ean ordainsariak ehuneko 5 urritu zirela eta 2011n murriztapen hori baliogabetu egin zela, langileek erreklamazioa egin ondoren.

Udalak Barañaingo Auditorioa Fundazioari 2011rako eginiko ekarpena, aurrekontuko kontusail izendun batean aurreikusia, 2011ko martxoaren 31n formalizatu zen, hitzarmen-programa baten bidez, eta 20.000 eurokoa izan zen.

2011ko martxoaren 23an, Udalak eta Nafarroako Gobernuak hitzarmen bat sinatu zuten, Gobernuak 2011n guztira 450.000 euroko ekarpena egiteko konpromisoa hartuz, auditorioaren jarduerak –besteren artean Nafarroako Orkestra Sinfonikoa– finantzatzeko.

2011ko abenduaren 31n, fundazioaren kontabilitate-ondare garbia positiboa zen, –101.380 euro (2010eko abenduaren 31n ere positiboa, 100.575 euro)–. Epe luzerako zorra 12.240 eurokoa da (2010ean ez zegoen epe luzerako zorrik) eta maniobra-funtsa (aktibo arrunta ken pasibo arrunta) positiboa da, 34.984 euro.

*Gure aholkua:*

• *Fundazioaren urteko kontuak Udalaren kontu orokorrari eranstea, eranskin gisa besterik ez bada ere.*

Lan hau egiteko ardura izan duen Ignacio Cabeza del Salvador auditore jaunak hala proposatuta eman da txosten hau, indarrean dagoen araudiak aurreikusitako izapideak bete ondoren.

Iruñean, 2012ko urriaren 10ean

Lehendakaria: Helio Robleda Cabezas

## 2011ko abenduaren 31ko egoera-balantze laburtua

(Eurotan)

AKTIBOA		
	2011-12-31	2010-12-31
Aktibo ez korrontea		
Ibilgetu materiala	78.726	117.943
Aktibo arrunta		
Erabiltzaileak eta berezko jardueraren beste zordun batzuk	72.000	112.500
Merkataritza-zordunak eta kobratzeko dauden beste kontu batzuk	23.413	64.219
Epe laburreko ekintzak	0	1.050
Eskudirua eta bestelako aktibo likido baliokideak	60.316	24.937
	155.729	202.706
<b>Aktiboa, guztira</b>	<b>234.455</b>	<b>320.649</b>

ONDARE GARBIA ETA PASIBOA		
	2011-12-31	2010-12-31
Ondare garbia		
Funts berekiak	101.380	100.575
Fundazioaren zuzkidura	736.250	736.250
Aurreko ekitaldietako soberakinak	-635.675	-635.985
Ekitaldiko soberakina	805	310
	101.380	100.575
Pasibo ez arrunta		
Epe luzeko zorrak	12.240	0
Pasibo korrontea		
Epe laburreko zorrak	149	28.641
Finantza-errentamendu bidezko hartzekodunak	0	28.641
Epe laburreko zorrak	149	0
Merkataritza-hartzekodunak eta ordaintzekoak diren beste kontu batzuk	120.835	191.433
Beste hartzekodun batzuk	120.835	191.433
	220.074	220.074
<b>Ondare garbia eta pasiboa, guztira</b>	<b>234.455</b>	<b>320.649</b>

## 2011ko abenduaren 31n bukatutako ekitaldiaren emaitza-kontu laburtua

<b>Azalpena</b>	Eurotan	
	<b>2011</b>	<b>2010</b>
<b>Entitateak bere jardueraren ondorioz dituen diru-sarrerak</b>	<b>481.694</b>	<b>529.711</b>
Sustapen, babesle eta laguntzaileak direla eta izaniko diru-sarrerak	<b>31.694</b>	<b>79.711</b>
Ekitaldi honetan jaso eta bere jarduerari atxikitako diru-laguntzak, emaitzak eta legatuak	<b>450.000</b>	<b>450.000</b>
Salmentak eta merkataritza-jardueraren ondoriozko beste diru-sarrera batzuk	<b>202.430</b>	<b>184.490</b>
Bestelako ustiatze diru-sarrerak	<b>0</b>	<b>36.450</b>
Langileria-gastuak	<b>-307.994</b>	<b>-300.929</b>
Bestelako ustiatze-gastuak	<b>325.727</b>	-400.481
Ibilgetuaren amortizazioa	<b>-39.217</b>	-47.573
<b>Beste emaitza batzuk</b>	<b>-9.015</b>	<b>0</b>
<b>USTIATZEAREN EMAITZAK</b>	<b>2.171</b>	<b>1.668</b>
Finantza bidezko diru-sarrerak	<b>323</b>	591
Gastu finantzarioak	<b>-1.689</b>	-1.949
<b>EMAITZA FINANTZARIOA</b>	<b>-1.366</b>	<b>-1.358</b>
ZERGA AURREKO EMAITZA	805	310
Mozkinen gaineko zerga	0	0
<b>EKITALDIKO SOBERAKINA</b>	<b>805</b>	<b>310</b>